

**Herririk Herri** |2|

Zerga eta tasak izoztuta Durangon EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin

**Kultura** |11|

Imanol Ubeda musikariak zabalduko du eguenean, bigarren Kantuaren Kantoia



**Berbaz** |9|

Platerueneko arduradunekin kafe antzokiaren 6. urteurrena gogoratzuz

## Atxondo II. Gazte Topaketen bilgune asteburuan

**Atxondo**• Gazte Topaketak antolatuko dituzte asteburuan Atxondoko gaztetxean bigarren aldiz. Lan taldeak, tailerrak, eztabaidak, kontzertuak eta beste hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Durangaldeko gazteek.

4

## Fontiverosen eskultura jarri dute Abeletxe auzoan

**Berriz**• Manuel Fontiverosen eskultura herri-sarreran jarri dute. Arte Ederrak ikasten dabiren 24 urteko katalanak I. Eskultura Lehiaketa irabazi du *Aldaketa* lanagaz. Altzairuz eta harriz osatu du lana.

7

## Cafés Baquéko final-laurdenetara heldu da Bereinkua

**KIROLA** • Mikel Bereinkua dugu XXV. Cafés Baqué Txapelketan Durangaldeak duen ordezkari bakarra. Eguaztenean final-laurdenetarako sailkatu zen Etxebarria 18-1 menderatuta. Orain Elezkano izango du aurkari.

18

## ORDU ALDAKETA!

Domeka goizaldean, 03:00etan 02:00ak izango dira



• **Durango**  
'Agurrik gabeak' oroimen ekitaldia Plateruenean

2

• **Iurreta**  
Marokoko kultura ezagutzeko aukera liburutegian

4

• **Mallabia**  
Des-kontrol, Esne Beltza, Kop eta Gatillazo urriko jaietan

7

# Osakidetzari lokala uztea atzera bota du oposizioak Abadiñon

> Traña-Matienako anbulatorioaren ondoko lokala uztea proposatu dute Independenteeek

> Oposizioak gaiari "soluzio global" bat eman behar zaiola azaldu du

3



Kepa Aginako

## Saskibaloien harrobiaren jaia Landako Gunean

**Durango**• Bizkaiko Saskibaloien Federazioak eta Bizkaibasket Fundazioak II. Saskibaloien Jaia antolatuko dute zapatuan Landako Gunean. Tabirako Baqué, Durangoko Udala eta Aldundia ere

ekimenaren laguntzaileak dira. Ekitaldian 8-16 urte arteko 2.000 gazte batuko dira. Fernando Romay etorriko da eta hainbat joko prestatuko dituzte Durangoko saskibaloien jaian.

17

Altzariak Dekorazioa

**maderlan**

Bilbo etorb. 9 behea • 48250 Zaldibar • Tel.: 946 22 50 74 • maderlan@orange.es

# HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO

## Tasak eta zergak izoztu eta hobari batzuk gehitu dituzte

EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dituzte ordenantza fiskalak



EAJren esanetan krisiak eskualdea "gogor" jo duelako proposatu dute tasak eta zergak izoztea.

**T**asak eta zergak zeudenean mantentzen dituen proposamena aurkeztu zuen martitzeneko udalbatzarrean EAJk, eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zituzten 2011ko ordenantza fiskalak. PP abstenitu egin zen, eta Talde Mistoak eta Aralarrek kontra bozkatu zuten.

EAJk azaldu zuenez, "krisi ekonomikoak eskualdea gogor jo duelako" proposatu dute tasa eta zergak zeudenean uztea.

PSE-EEK aurkeztutako 14 zuzenketetatik sei onartu zituzten. Horrela, esaterako, obra publikoen ondorioz eta horiek iraun duten bitartean, modu batera edo bestera, euren negozioetan kaltea

**Talde Mistoak aurrekontuak eta tasak batera eztabaidatu behar direla salatu du**

jasan duten komertzioek, gehienez %95era arteko hobaria lortu dezakete zabor eta estolderia tasetan. Obrek eragin dieten egun kopuruaren arabera, hobaria handiagoa edo txikiagoa izango da.

Talde Mistoak, iazko moduan, osoko zuzenketa bakarra aurkeztu zuen, arrazoi birengatik: batek, "ordenantza fiskalen eta aurrekontuen gaineko eztabaidak batera" egin behar direla azaldu zuen Ritxar Alberdi zinegotziak; bestetik, "gehien daukatenek gehiago ordaindu behar dutela dioen irizpidearen alde gaude, eta gure ustez zirriborro honek ez du hori islatzen".

Aralarrek proposatu eta udalbatzarrak onartutako zuzenketa biak nekazaritza arlokoak dira. Hain zuzen ere, nekazaritza edo abeltzaintza jardueran nagusi dutenek %60ko hobaria izango dute ondasun higiezin zergan eta %80koa eraikuntzen, azpiegitu-

ren eta obren zergan. Hala ere, Aralarrek KPIren araberrako igoera proposatu zuen (%2): "Kasu askotan tasetan jasotzen ez dena aurrekontuetatik atera behar da, eta hura ere herritarrengandik jasotako dirua da".

**Guztira, 30 zuzenketa partzial aurkeztu dituzte; PSE-EEK sei, Aralarrek bi eta PP-k bat. Udalbatzarrak onartu egin ditu**

PPkrisiaren ondorioz gehien pairatzen duten norbanako eta kolektiboek bideratutako hobariak aurkeztu dituela azaldu zuen Cristina Ibarrola zinegotziak, eta horietatik bakarra onartu izana salatu zuen. PPren zuzenketek familia ugarietara, langabeei eta errenta baxukoek laguntzea zuten helburu, "krisia gehien pairatzen dutenak direlako". ■ J.D.

## Azaroan beherapenak Durango Txartelaren bidez

Durangaldeko + Dendak merkatarien elkarteak jakinarazi duenez, azaroan eta abenduko lehen hamabostaldian Durango Txartelagaz egindako salerosketen egitasmoan sartuta dauden 88 komer-

tzioetan erosten dutenek %5eko deskontua izango dute produktu guztietan. Gainera, abenduan zehar Durango Txartela erabiliz erosten dutenak izotz pistarako 300 sarreraren zozketan sartuko

dira, eta 2010a amaitu arte Izurtza eta Otxandioko Avia gasolindegietan %3ko deskontua izango dute. Azaroan txartela egiten dutenek, gainera, euritako bat eta Euskal Harleyren oparia jasoko dute.

2009ko azarotik hona 668.000 euro fakturatu dira Durango Txartelaren bidez egindako erosketetan. Txartela egitea doakoa dela gogorarazi du +Dendak-ek. ■ J.D.

## Aralarrek hileta zibilak arautzeko ordenantza proposatu du Udalean

Gaur egun gizartean nabari den "beharrizanari" jarraituz osatu dute hileta zibilen ordenantza

Aralarrek Durangoko Udalean ordenantza proposamena aurkeztu du, *hildakoen alde agur edo omenaldi zibilak egiteko araudia* deritzona. Alderdiak ordenantzaren oinarrian gaur egungo jendar-teak duen beharrizana dagoela deritza, "ideologia, erlijio eta kulturaren aldetik aniztasun handiko gizarte baitugu, eta ohitura eta ekitaldi sozialak adierazteko modua etengabe aldatzen ari delako". Horren haritik, erakundeei dagokie, Aralarren iritziz, "gizarte ez-konfesional eta laikoan pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzako bermatzea".

Durangoko Udaleko Aralarren bozeramaile Dani Maetzuk azaldu duenez beste herri batzuetan ere "antzeko ordenantzak onartu dira" eta "ezinbestekoa da" Durangon ere hildakoen aldeko hileta edo omenaldi zibilak egiteko aukera ematea. Ildo horretatik, proposamenak jasotzen du

erlijiorik barik bizitzea hautatu dutenen omenez ospakizun "duin eta pertsonala" egin ahal izateko aukera eskaintzea.

Aurkeztutako ordenantzak jasotzen duenez, "gure gizartean, eta geure herrian bertan, erlijio batzuek beren hildakoei aguresateko ospakizun liturgikoetarako toki edo tenpluak dituzten moduan, Durangoko Udalari dagokio egunetik egunera handitzen ari den eskaera sozial bati erantzutea". ■ J.D.

**Aralarren iritziz, gizarte ez konfesionala "erakundeei dagokie askatasun erlijiosoa eta gurtzarako bermatzea"**

**Proposamenak erlijio barik bizitzea hautatu dutenei ospakizun duina eskaintzen die**

## Hobi komunen gaia landuko du Aranzadik, gaur, Plateruenean

Paco Etxebarria Aranzadizientzia elkarteak lehendakariak hobi komunen inguruko berbaldea emango du, gaur, Plateruenean. Durango 1936 Kultur Elkarteak antolatzen duen *Agurrik gabeak* oroimen ekitaldiaren zati bat izango da berbaldea, gaur 20:00etan hasita.

**Bihar San Agustin aretoko sarreran hobi komunen erakusketak ipiniko dute**

Aurten hirugarren urtez, Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan hildakoak omenduko ditu Durango 1936k. Berbaldiaz gain, lore eskaintza egingo dute, eta Doinu Zahar taldeak kantaldia eskainiko du.

Bihar hasi eta datorren zaptura bitartean, gainera, hobi komunen gaineko erakusketak ipiniko dute San Agustin kultur guneko sarreran. Erakusketak horretan Aranzadik egindako lana erakutsiko dute. ■ A.U.

## Greban dirautela negoziatzen hasi dira Fumbarri enpresan

Martitzen arratsaldeko batzarrean enpresako zuzendariak eta komiteko LABeko ordezkari Jon Ugartek batzarra izan zuten lan baldintzen inguruan negoziatzeko. Atzo eguerdian batzar informatiboa deitu zuten langileekin proposamena aztertzeko, baina oraindik greba mugagabeen segitzuten dute.

Proposamenak hainbat puntu ditu: 2011n KPI gehi %1,25 ez igotzea; orain 2012an amaitzen den lan hitzarmena 2013ra arte luzatzea; langileen artean maila ezberdinak sortzeko asmoa urtebete atzeratzea; 2010ean beharginekin kitatu beharreko zorrak urtebete atzeratzea, etalan bermea segurtatzea datorren urteko abuztu ala abenduaren amaierara arte. Orain langileei dagokie proposamena aztertu eta erantzutea. ■ J.D.

**Zuzendaritzaren proposamena jasota, orain langileei dagokie erantzun bat ematea**



**DURANGALDEA**

# Atxiloketak salatu eta prozesu demokratikoa babestu dute

Martitzenean agerraldia egin zuten eskualdeko hainbat herritarrek



Hizkuntza Eskolako areto nagusian batu ziren prentsaurrekoa eskaintzeko.

Joan zen barikuan Espainiako Poliziak Segiren kontra egindako operazioa salatuzko agerraldia egin zuten hainbat lagunek martitzenean, Durangon. 14 gazte atxilotu zituzten barikuan Grande Marlaska epailearen aginduz Segiko kide izatea argudiatuz, eta miaketak ere egin zituzten, tartean Durangoko Askatasun etorbideko etxe bat.

Hara, "salaketa hutsa egitera barik, errepresioaren porrota ospatzera" joan zirela azaldu zuten. Euren ustez, "Estatuaren beso erreakzionarioenak gorrotoak bul-

**Gazte independentistek Gernikako akordioa sinatu dutela gogora ekarri zuten**

tzatutako ahaleginetan dabilta, prozesu demokratikoari aurre egin guran". Prozesuaren aldeko babesa gizartean gero eta handiago dela, eta "atxiloketei darien kiratsa gero eta nabarmenagoa" dela azaldu zuten. Gazte independentistek *Gernikako akordioa* sinatu dutela gogora ekarri, eta gazteria zein herritar oro prozesuaren alde lan egitera deitu zuten. ■ M.O.

# Urkiola Landa Garapenak zaldiei lotutako turismo topaketan parte hartu du

Urkiola Landa Garapenak zaldien turismoa berbagai izan zuen beste hamar herrialdegar

Durangaldeko Urkiola Landa Garapenerako Alkarteko ordezkariak batek *Zaldi Ostatuen Europako Sarea* lankidetzara proiektuaren topaketan parte hartu du oraintsu Frantziako Caen hirian.

Proiektu hori Europako 11 tokiko ekintza taldek bultzatuta dago: Andaluziako sei taldeek, eta, Durangalde, Nafarroa, Normandia, Portugal eta Hungariako banak. Egitasmoaren helburua

zaldi turismoari zerbitzua emango dion kalitatezko produktu turistikoa sortzea da. Zerbitzu honek erabiltzaile zein zaldientzako kalitatezko ostatua eskaintzeaz gainera, zerbitzu osagarriak eskainiko lituzke. Bestalde, zaldian ibiltzeko ibilbide homologatuak eskuragarri ipini gura ditu. Produktu honek, gainera, egitasmoan murgiltzen diren eskualdeen turismoa sustatuko du. ■ J.D.



Ordezkariek Europa mailan gauzatu gura dute egitasmoa.

## BERRIA egunkariarekin DOAN

**Atlas Historikoa**  
EUSKAL HERRIA MUNDUAN

**Munduaren bilakaera Euskal Herriko historiaren bidez ezagutzeko liburua**

**Gure errealitatea ezagutzeko oso baliagarria**

Euskal Herriko historiaren urrats nagusiak biltzen dira atlas honetan. Historiaurretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da. Horretarako, irudia baliabide garrantzitsua da: ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakingarri agertzen dira, gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun.

**Azaroak 5, ostirala,**  
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan  
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

GIPUZKOA  
zurekin, aurrera

gizarte  
kutxa

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**

**DURANGALDEA**

Atxondoko gaztetxean spot bat grabatu dute hainbat gazte topaketan berri emateko

## Euskara, aisialdia eta sorkuntza berbagai II. Gazte Topaketetan

Asteburuan eskualdeko gazteen bilgune bihurtuko da Atxondoko gaztetxea

**L**an taldeak, tailerrak, eztabaidak, kontzertuak... ekitaldiz betetako asteburua izango dute asteburu honetan Atxondoko gaztetxean. Iaz Abadiñon egin zuten legez, aurten Atxondon elkartuko dira hainbat gazte, gizar-

**Asteburu osoan gaztetxean egoteko bonoak saldu dituzte baina egun solteetan ere joan daiteke gazte topaketetara**

te gai batzuk landu eta asteburu-pasa egiteko asmoz.

Iazko topaketetan 50 gazte inguru batu ziren Abadiñoko gaztetxean. Topaketen antolakuntzan ibili den Amaia Aurrekoetxeak azaldu duenez, aurten iazko lanagaz jarraitu gura dute: "Durangaldean normalean gazteok denok batera gauza gutxi egiten dugu, eta hau gerora begirako egitasmoak sortzeko bide bat izan daiteke".

Hausnarketarako hiru lan talde eratuko dituzte asteburuan,

aisialdia, sorkuntza eta euskara gaiak lantzeko. Zapatu goizean, gainera, gazte mugimenduen eta hezkidetzaren gaineko eztabaida izango dute.

Hausnarketa eta eztabaidez gain, kontzertuak eta gaubeilak antolatu dituzte astebururako. Zapatu arratsaldean, gainera, clown tailerra, ekialdeko dantzak eta globoflexia izango dituzte. Asteburu osoan bonoak saldu dituzte, baina egun solteetan ere joan daiteke topaketetara. ■ A.U.

## Durangaldeko kanposantuak lorez jantziko dira astelehenean

Urteroko ohiturari eutsiz, azaroaren 1ean, Domu Santu egunean, eskualdeko kanposantuak lorez jantziko dituzte. Oraindik asko eta asko dira hildako senideak eta lagunak gogoan hartzeko kanposantura urtero joaten diren lagunak. Dena dela, azken urteetan lurperaketa beharrean, askok errausketa aukeratzen dute.

Hala ere, oraindik hilerrietan garbi nabarmentzen da santu guztien omenezko jai kristaua noiz den. Herritar eta auzotarren joan-etorriak goizetik iluntzera luzatzen dira eta hilerriek kolore bizia hartzen dute lore sorten laguntzagaz. Dena dela, askok atontze lanak egiteko aurreko egunak aprobetxatzen dituzte, jende gutxiago ibiltzen da eta. ■ J.D.

**Ohikoa ez den itxura koloretsua erakutsiko dute hilerriek astelehenean**

**IZURTZA**

## Autobus geltokia atontzeko lekurik aproposena aztertzen dihardute

Herriko Plan Orokorraren gaineko batzarretan aztertu eta erabaki beharreko gaia da Durango eta Gasteiz lotzen dituen autobusen erabiltzaileendako herrigunean geltoki aproposa egiteko lekua. Oposizioko jeltzaleek zein

gobernu taldeko ordezkariak "beharrezko" ikusten dute autobus geltokia; Iker Ballarin zinegotziaren berbetan, "gobernuak kokapen egokiaren gaineko ideia bat badauka, baina, dioenez, "oraindik gehiago aztertu behar da zer leku den egokiena".

Hain zuzen ere, joan zen hileko batzarrean mahaigaineratu eta "gogorarazi" zuen EAJk "autobusaren erabiltzaileendako geltoki baten eta zerbitzuaren ordutegi zabalagoa" behar dela. ■ I.E.

**"Beharrezko" ikusten dute autobus geltokia, Ezker Abertzaleak zein jeltzaleek**

**IURRETA**

## Marokoko kultura ezagutu eta bizitzeko aukera liburutegian

Marokoko ipuinak, jokoak, gastronomia eta musika ezagutzeko ekitaldiak antolatu dituzte

Maider Galarza ipuin kontalariak umeentzako eta nagusientzako Marokoko ipuinak kontatuko ditu gaur Herri Bibliotekan. 18:00etan izango da umeentzako kontaketa, eta helduentzako 20:00etan. Marokoko kultur aragurtzeko liburutegian antolatu diren ekitaldietako bat izango da gaurkoa.

Iaz Errumaniako kulturagaz egindako moduan, Marokoko kulturaren berri edukitzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Iurretako Herri Bibliotekak. Asteon erakusketak bi zabaldu dituzte, eta hitzaldiak ere eman dituzte. Munduko Paisaiak ekimenaren barruko ekitaldiak dira horiek.

**Marokoko janaria**


Ekitaldi nagusia azaroaren 11n izango da. Marokoko gastronomia erakustaldia eta dastaketa egingo dute liburutegian, 18:30etik aurrera. *Humusa* (garbantzu pate), kus-kusa, pastela, temurua eta pastak zelan egiten dituz-

ten eta noiz eta zergatik jaten dituzten azalduko dute. Horrez gain, Bouhia arabiar-berebere taldeak kontzertua eskainiko du.

Datorren martitzenean, azaroaren 2an, umeentzako tailerrak egingo dituzte Marokoko umeen betiko jolas, abesti eta ohiturak ezagutzeko. Eguenerako, berriz, bideo-foruma antolatu dute *Retorno a Hansala* eta *El viaje de Saind* pelikula marokoa-reen. 18:30ean hasiko da film emanaldia. ■ A.U.

**Asteon Marokoko kulturari buruzko erakusketak ipini dituzte Herri Bibliotekan**

**Ekitaldi nagusia azaroaren 11n izango da, gastronomia dastaketa eta kontzertuagaz**



Hajar Samadik 'Ezagutu Maroko' hitzaldia eman du asteon

## Merkataritzaren Astea dela eta, umeentzako parkea zapatu honetan

Hirigunean puzgarriak, tailerrak eta kale animazioa egongo dira 11etatik aurrera

Urriaren 23tik 30erako Merkataritzaren Astea dela eta, Iurretako kaleetan umeentzako parkea ipiniko dute zapatu honetan. +Dendak elkartearen laguntzaz Eusko Ganberek antolatuko ditu zapa-

tuko ekintzak, eta euria egiten badu Iurretako frontoian izango direla jakinarazi dute.

"Merkataritza, Iurretako erakusleihen" lelopean ospatuko da zapatuko eguna, eta umeentzako ekintza guzti horiek Askondo kalean egingo direla azaldu dute antolatzaileek.

Euskal Merkataritzaren Astean merkataritzaren gaineko hainbat jardunaldi eduki dituzte merkatariek EAeko hiriburuetan.

**Eusko Ganberek +Dendak elkartearen laguntzaz antolatu ditu ekintzak**

**OTXANDIO**

## Juntako kideak berriitu ditu Mainondo guraso elkarteak

Urriaren hasieran 30 lagun batu zituen urteko batzar nagusia egin zuen Mainondo guraso elkarteak eta, besteak beste, juntako kide berriak aukeratu zituzten. Leire Axpe, Miren Soloeta eta Lorea Agirre izango dira guraso elkarteko batzordekide berriak

**Ricardo Garaigordobil izango da ikasturte honetan batzordeko lehendakaria**

datozen urte bietarako. Horiek, Koldo Flores, Irene Unzu eta Amaia Langarikaren tokia hartuko dute. 2010-2011 ikasturtean batzordeko lehendakaria Ricardo Garaigordobil izango da; diruzain lanak Idoia Ortizek egingo ditu; eta idazkari kargua, berriz, Josune Kapanagaren esku geratu da.

Batzarrean guraso elkarte-ko eta Multikirola kontuko iazko balantzeak ere azaldu zituzten; bietan kitapen positiboa izan da. ■ J.D.



**BAUTISTA**  
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO



**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA  
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

**AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA**

**ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA**

**[www.bautistamuebles.com](http://www.bautistamuebles.com)**

Santa Kurutz ind. 1 zk. LAUDIO (A-68aren 3. irteera) • Urbitarte ind. 4. partzela, 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

ABADIÑO

# Osakidetzari lokala lagatzearen kontra oposizioko talde biak

Traña-Matienako osasun-etxe ondoko udalaren lokala, zentroa handitu dezan, Osakidetzari lagatzea proposatu zuen gobernuak udalbatzarrean



Araozari "soluzio global" bat eman behar zaiola aldarrikatu zuen Ezker Abertzaleak.

Berez Traña-Matienako osasun-etxea handitzearen kontra ez daudela nabarmendu, baina "azken bi urteotan gaia zelan kudeatu duten ikusita zalantza asko" dituztela azaldu zuen martitzeneko plenoan Ezker Abertzaleko Basauri zinegotziak. Orain urte bi, osasun erakunde publikoak Traña-Matienako zentroa handitzeko beharra adierazi zuenetik, informazio kontraesankor larregi zabaldu dela adierazi zuen Ezker Abertzaleak martitzeneko plenoan. "Zergertatzen da gainontzeko auzoekin?", gaineratu zuen Basaurik. Muntzaratz eta Zelaietako anbulatorioetan ere arazoa dagoela nabarmendu zuen.

Herrian asistentzia sanitarioari dagokion arazoari "soluzio global bat" eman behar litzaiokeela adierazi zuten oposizioko taldeek. Osakidetzagaz herriko zentro biak indartzea bermatuko duen hitzarmen bat lotzea proposatu zuen Ezker Abertzaleak: "zentro bien aldeko apustua eginez, eta ez zerbitzuak zentralizatuz".

Osasun-etxea handitzeko, lehen jubilatuen zentroa libre

**Proiektuari dagokionez "zalantza asko" dituztela esan, eta lagatzearen kontra bozkatu zuen oposizioak**

uzteko, jubilatuen egoitza eskolaren eremura lekualdatu zutenetik, "espazio faltagatik kexu" direla jubilatuen elkartekoak, gogoratu zuen Axier Garate jeltzaleak. "Osakidetzaren proiektuaren inguruko informazio gehiago ez dugun artean, kontra bozkatu dugu", amaitu zuen Garatek.

Marian Larrauri EAJko zinegotziaren interpelazioz, "Osakidetzaren jarrerari dagokionez zuek dituzuen zalantzak neuk ere izan ditut", erantzun zuen Jose Luis Navarro alkateak, "baina argi daukat Traña-Matienako zentroa handitzeko beharra dagoela". Aurreantzean ere "gaia lantzen jarraituko dugu", amaitu zuen. ■ I.E.

GARAI

## Amaitu dute San Migelen argiztapen berria ipintzen

Hilabete eman dute lanean San Migel eliza inguruko argiztapena aldatzeko. Lehenago -uda aurretik- plazan egin zuten moduan, bigarren aldi honetan elizaren inguruko farolak aldatu edo konpondu dituzte. Irailean ekin zieten lanei beharginek, eta urrirako farolak argia emateko prest zeuden dagoeneko.

Udaletik azaldu dutenez, farola batzuk konpondu egin dituzte eta beste batzuk aldatu, berriak jarri zuten. Beste herri batzuetan semaforoak ipintzeko ereduari jarraituz, kontsumo txikiko LED argia erabili dute farola berritan.

Egitasmoaren aurrekontua 76.345 eurokoa izan da, udaleko ordezkariak jakitera eman dutenaren arabera. ■ M.O.

ATXONDO

## Udal tasak % 3,3 igoko dituzte datorren urtean

Igoera % 3ren inguruan egotea eta KPIren igoera hartu dituzte kontutan neurriak proposatzerakoan

Atxondoko Udalak datorren urteko tasak batzabeste %3,3 igotzea onartu du. Atxondoko familia arrunt batek ordaintzen dituen zergak apur bat gutxiago igoko dira: %2,9. Portzentajeak dirutara eramanda, zaborraren, uraren,

Udal arduradunek azaldu dutenez, igoera pentsatzerakoan datu bi hartu dituzte kontuan: Azken lau urteetan Kontsumo Prezioaren Indizea igo dena baino gehiago ez igotzea eta urteroko igoera % 3ren bueltan egotea.

**EAJ kontra**

EAJk tasen igoeren kontra bozkatu du. Diru-sarrera gutxien dute nekin salbuespenak egitea proposatu du, esaterako, obren lizenzien zergetan. Pertsona nagusiei igogailuen obrei dagozkien zergak kentzea ere proposatu du. Gobernu taldeak erantzun du salbuespen horiek ez dituztela aurreikusi, gizarte langileei dagokielako halakoak aurreikustea. ■ A.U.

**Batez beste, familia batek aurten baino 7,37 euro gehiago ordainduko ditu**

autoaren eta igerilekuaren gainera zergengatik 7,37 euro gehiago ordaindu beharko dute familiek. Aurten 238,92 euro ordaindu dituzte, eta datorren urtean 246,29 euro ordaindu beharko dituzte.

ELORRIO

# Kiroldegiko hile biko kuota bueltatuko dute

Bazkideei dirua itzultzea erabaki du udalak

Hile bian itxita egon da Elorrioko kiroldegia hainbat eraberritze lan direla eta. Niko Moreno alkateak jakin eragin duenez, hile bi horietako bazkideen kuotak bueltatu egingo dituzte: "Egia esanda, kexa formalik ez dugu jaso udaletxean, baina egoki ikusi dugu diru hori bueltatzea". Kiroldegiak 1.000 bazkide inguru ditu eta 9.200 euro bideratu dituzte zeregin horretara. Igerilekua itxita egon den hile bietan, erabiltzaileek Abadiñoko igerilekuak erabili ahal izan dituzte.

Kiroldegiko lanak hainbeste luzatu izanaren zergatari buruz galdetuta, lanak aurrera eroan dituen enpresaren "gehiagizko baikortasuna" aipatu du. Horrez gainera, "obra denetan gertatzen diren arazo txikiak ere sortu dira".

**Kiroldegiak 1.000 bazkide inguru ditu eta 9.200 euro bideratu ditu Udalak**

Kiroldegian gimnasioko hormak eta zorua berritatu dituzte; igerilekuko aldagelak ere atondu dituzte, gutxitu fisikoentzako egokituz. Spinning gelak 15 bizikleta berri ditu, orain arte baino hiru gehiago. Lan horiek 300.000 euroko aurrekontua izan dute. ■ J.D.

**Niko Moreno: "Ez dugu kexa formalik jaso, baina egokia iruditu zaigu dirua bueltatzea"**



Spinning praktikatzeko gelak 15 bizikleta berri ditu orain.

## Iraileko soldatak oraindik kobratu ez dituztelako kexu dira Ductilor-Fytasan

Udako aparteko paga ere oraintsu kobratu dute eta langileei "aurreztutakoa amaitzen ari zaie"

Joan zen astetik Ductilor-Fytasa enpresaren parean pankarta bi ikusidatezke. Biak soldaten ingurukoak dira. Izan ere, Manu Fernandez ELAko ordezkariak salatu duenez, "langileek oraindik ez dute iraileko soldatarik kobratu

tua delako eta dagoeneko aurreztutakoa amaitzen ari zaielako".

Fernandezen arabera, "urtean ordu gehiago lan egiteko eta libre ditugun egun batzuetan lanera etortzeko ere eskatu dute. Horrez gainera, langileen %50eko enplegu erregulazioa ere proposatu dute.

**Soldatak %13an jaisteko arriskua ere badagoela salatu du komiteak**

eta udako aparteko soldata oraintsu jaso dute". Gainera, Fernandez arabera, "soldatak %13 jaisteko asmoa ere badago".

Langileen aldetiko protestak aspaldikoak dira Ductilor-Fytasan. 2009ko abenduan manifestazioa egin zuten Elorrioko kaleetan eta otsailean udal batzarrak aho batez elkartasuna erakutsi zuten langileei mozio bidez. ■ J.D.

Atzo konkurtso administratioagaz egindako batzarrean horixe izan zuten eskakizun nagusia, izan ere, "langile batzuk larri dabilta, soka luzea dakarren kon-

**Atzo izandako batzarrean soldatak eguneratzea izan zen punturik garrantzitsuen**



## Durungaldean labor

### Rol jokoan inguruko jaialdia, asteburu osoan, kiroldegian

Kondaira elkarteak gaurtik astelehenera, besteak beste, roljokoan inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Egunero hainbat jokoren erakustaldiak eta lehiaketak egingo dituzte, eta mahai-inguruak ere egongo dira. Esaterako, gaur 22:30erako, *Hitz egin dezagun zontziei buruz* izeneko mahai-ingurua antolatu dute. Lau egunetako programa osoa [www.ackondaira.com](http://www.ackondaira.com) webgunean jaso daiteke.

### Pertsona nagusien arreta zerbitzua berbera izan dute

V. Orue Sinposiumean inoren menpe bizi direnzentzat eta euren jagoentzat zuzendutako zerbitzuak aztertu dituzte oraintsu. Zornotzako Orue eta Durungaldeko Zaindu programa aitzindariak dira. Euren bitartez garatzen dira orientazio, sentsibilizazio eta jagoletza laguntzeko programak: "Gaur egun pertsona bat jagotea ez da derrigorra, erabakia da", diote.



### Kultur arteko bizikidetzak sustatuz

Jappoo elkarteak kultur arteko bizikidetzak sustatzeko jaialdia ospatuko du, zapatuan, merkatu plazan. 17:00etan Jeanne Rolende Dacougnak bizikidetzaren inguruko hitzaldia emango du; Batu Afro-Vasco Folk eta Ganako txarangaren musika ere eskainiko dute.

## BERRIZ

# Fontiverosen eskultura kokatu dute dagoeneko

I. Eskultura Lehiaketako lan irabazlea Abeletxe auzoan dago ipinita



Altzairuak eta harriak osatzen dute Manuel Fontiverosen *Aldaketa* izeneko lana.

Herri-sarreran, Learreta-Markinakalearen amaieran ipini dute I. Eskultura Lehiaketako lan irabazlea: *Aldaketa*. Manuel Fontiveros katalanak sortu du obra; urtarrilean eman zioten saria, eta martxotik ibili da lanagaz ekinean.

Hasieran uste baino denbora gehiago eman du egileak; izan ere, "altzairuzko piezen okerdurak egi-

**Harria garraiatzeko, metalezko egitura berezia egin behar izan dute, kamioian ez mugitzeko**

teko irudimena askatu behar izan du, eskultura lar ez garestitzeko", udaletik azaldu dutenez. Ekainera arte ibili zen altzairuagaz; uztailan eta abuztuan harria lantzen hasi zen. Markinan egin zuen bigarren zati hori, eta "gaitzena, Berrikerako garraioa" izan ei da. Garraiatzeko, metalezko egitura berezia egin behar izan diote, kamioian ez mugitzeko. Pilota 1,30 metro diametrokoa eta 2,5 tonatakoa da; burdinak, 4,20 eta 1,70 metrokoak.

#### Askatasunari oda

Hiru piezatak eskultura dirudien arren, Fontiverosek funtsean bi direla azaldu zuen. Eratzun nagusi-

aria, euskal kultura islatzen duen harrizko pilota zapaltzen ibili da, baina, denboran zehar kulunkatuz, libre izatea lortu du. "Aldaketa, zentzuna eta errespetuari eskainitako

#### "Aldaketa, zentzuna eta errespetuari eskainitako lana" da Fontiverosena

lana" da, eta "ez irabazle edo galtaileei omenaldia". 47 lanen artean erabaki zuten epaimahaiak eta herritarrek Arte Ederretako 24 urteko ikasle honen proposamena saritzea. ■ M.O.

## ZALDIBAR

# Berdintasunerako komunikazioa, ikastaroetan

Zaldibarko Udaleko politikari, administrari eta teknikariek ikastaroak jasotzen dihardute

Maiatzean onartu zuen udalbatzararak Berdintasunerako komunikazioaren ordenantza, udaleko jardueretan zein irudietan emakumeak diskriminaziorik barik tratatzeko helburuz. Hizkuntza eta irudien erabilpena arautzen du ordenantza honek, eta udal langile zein kargu publikoak horren

**Araudia betetzeari eta sentsibilizazioari begira, gida bat prestatzen dabilta**

gainen irizpideak jasotzen dabilta ikastaroetan, udaleko ordezkariak azaldu dutenez. Gainera, araudia betetzen laguntzeari eta sentsibilizazioari begira, gida bat prestatzen dabilta; tresna praktikoa, ohiko akatsak eta zuzenketarako aukerak eskainiko ditu gida horrek, oharrean diotenez.

Udaletik diotenaren arabera, "EAEn ez dago mota honetako ordenantza askorik, eta eskualdean ere ia nobedadea dela esan daiteke". Udaleko zein bere menpeko edozein erakundetan aplikatu beharko dute ordenantza. Bando, kartel edota errotulazioetan eragingo du, esaterako. ■ M.O.

## MALLABIA

# Ekitaldiz beteta datoz urriko jaiak

Txupinazoagaz gaur jarriko dituzte jaiak martxan

Egitarau oparoa antolatu dute Mallabian urriko jaietarako. Guraso elkarteak tailerrak prestatuko ditu umeentzako gaur 16:30ean eskolako frontoian. Txupinazoan 18:00etan jaurtiko dute eta ondoren enkarteladan bilduko dira. Elizpeko pilota finalak 19:00etan jokatuko dituzte. Jaiak trikiber-

**Esne Beltza, Gatillazo, Des-kontrol eta Kop zapatuan arituko dira**

tso-poteoagaz tabernarik taberna jarraituko du. Mallabiko trikitalari eskolagaz Odei Barroso, Joseba Artza eta Beñat Ugartetxea arituko dira bertsoetan. Afaria antolatuko dute 21:30ean frontoian eta

ondoren Itsaso Pradera pilotaria omenduko dute.

Mallabia Futbol Tadeakeskolarteko futbito txapelketa eta saskibaloioa antolatuko ditu zapatuan eskolako frontoian. Paintballen aritzeko aukera eskainiko dute goizean eta baita arratsaldean ere futbol zelaian. Gauean, Esne Beltza, Gatillazo, Des-kontrol eta Kop taldeen kontzertuak 22:00etan hasiko dira. Izar Gorri elkarteak goizaldeko 05:00etan txorizo pintxoak banatuko ditu.

Hipo eta Tomax pailazoekin ekingo diote 16:00etan domekako egitarauari. Tute, mus, asto eta briska txapelketak 16:30ean tabernetan antolatuko dituzte. Luhartzaldearen erromeria doinuek girotuko dute bai arratsaldea eta baita gaua ere plazan. ■ J.G.

## MAÑARIA

# Sendabelarrak ezagutu eta baliatzeko ikastaroa

Gaur eta azaroaren 4an, 17:00etan, egingo dituzte sendabelarren gaineko azken saio biak

Joan zen udaberrian egin zuten Durangoko Amankomunazgoak ekarritako *Sendabelarrak aukeratu eta preparauak egin* izenburuko berbaldia Mañarian, eta sendabelarretan eta euren erabileran sakontzeko interesa daukatenek ikastaroa izan dute udazken honetan—urri eta azaroan—aukeran.

Urriko hiru arratsaldetan abiatu dituzte ikastaroan izena eman dutenek saioak, eta gaur eta azaroaren 4an, 17:00etan, dituzte azken saio biak. Datorren urte hasieran eta udaberrian, bestalde, *Kontserbak* eta *Nekazaritza naturala* gaien inguruko ikastaroak izango dira aukeran. ■ I.E.

**ZARATE ELEXP**  
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
[construcciones@zarateylexpe.biz](mailto:construcciones@zarateylexpe.biz)

## BERBAZ &gt;

# “Ekoizpenen herritartasunean dago gure kultur gintzaren indarra”

Plateruena kafe antzokiak sei urte egin dituen astean, bere ibilbideaz eta geroaz jardun dugu arduradunekin

**D**urangoko hiltegi zaharra kafe antzoki bihurtu zenetik sei urte bete dira astean. Urteotako balantzea egin dugu Plateruenerako lehendakariagaz eta kudeatzaileagaz.

*Zelan gogoratzen duzue orain dela sei urteko hasiera hura?*

**Beñat Gaztelu-Urrutia:** Zabaltzea zurrumbilo handia izan zen. Eraikinaren obrak amaitzeko estutasuna, egitasmoaren hasiera... denbora gutxiegi gauza asko batu zitzaizkigun. Aspertzeko astirik ez genuen eduki; oso sentipen bereziak daukagu sasoi harekiko.

*Egitarau ugaria izan duze urteotan. Zer balantze egiten duzue?*

**Jone Miren Goenaga:** Kalitate oneko ikuskizun mordoa antolatu dugu, eta oso pozik gaude egindako lanagaz. Hala ere, abiada handiegiko agenda izan da Plateruenerako, eta sarri ez dugu eduki astirik zer eta zelan antolatu aztertzeko. Aurten hausnarketarako tartea hartu dugu; gure hasierako idearioa garatu eta gaur egungo premietara ekarri dugu.

“Harreman-gune eta sorkuntza-eragile izan gura du Plateruena”

*Zer esan gura du horrek zehazki?*

**B.G.:** Ikuskizunen antolatzaile hutsak barik euskarazko kultur ekintzen sustatzaile izan behar dugula erabaki dugu; eta zerbitzu-emaile edo aisialdi-gune bakarrik barik, harreman-gune eta sorkuntza-eragile ere bai. Hori da eman dugun jauzi kualitatiboa.

*Zer inplikazio dauka jendarteak Plateruenera?*

**J.-M.G.:** Aipatzekoa da ia 900 bazkidek osatzen dugula Plateruena. Bazkideek ekarpen ekonomiko oso garrantzitsua egin zuten egitasmoa finantzatzeko, eta gaur egun boluntario talde zabala dago lanean egitasmoaren alor denetan. Bazkide eta boluntario guztiak inplikaturik daude egitasmoan, eta hori benetan txalogarria da. Eurak dira plateruak. Eurak barik ez legoke Plateruenera.

*Eta elkarte eta eragileek?*

**B.G.:** Plateruena elkarteentzako lagungarria den aterpea izatea gura



“Herriko eragileen artean antolatutako ekintzak aparteko ikusmina eta berotasuna sortzen dute. Ederra da hori”

genuen hasieratik, eta halaxe izan da. Makina bat ekitaldi gauzatzeko bidelagun izan gaituzte, eta esker ona sarritan jaso dugu. Baina elkarre bakoitzak bere egunerokoa dauka, ondo kostata aurrera atera behar duena, eta gure asmoa ez da haientzako ardura bat gehiago izatea. Kontrara, elkarlana bultzatuta agendak bateratu eta auzolanean proiektuak burutzeko bidea hartu dugu plateruok. Horren adibide dira Zilar Astea, Kantuaren Kantoia, Aiko erromeria eta aurrerago etorriko direnak.

*Badago urteotako ekintzaren bat bereziki gogoratzen duzue?*

**J.-M.G.:** Ikuskizun bat besteengandik bereizten duena, sarritan ez da ikuskizun mota edo artistaren ospea, antolatzeko modua baizik. Herriko eragileek auzolanean bultzatutakoek indar ikusgarria dute. Halakoetan, berotasun eta ikusmin berezia nabaritu dugu, ekitaldien aurretik eta ostean. Ikuskizunak duin eta profesionaltasunez gauzatu behar dira, baina ekoizpenen herritartasuna ere aldarrikatu behar da; hortxe dago gure kultur gintzaren indarra.

**Jone Miren Goenaga eta Beñat Gaztelu-Urrutia •**

- Jone Miren, Plateruenerako lehendakaria eta ikus-entzunezkoetan profesionala
- Beñat antzokiko kudeatzailea da

“Udalak inplikazio ekonomikoa behar luke hainbeste durangarren egitasmoan”

*Zailtasunak izango zenituzten.*

**B.G.:** Kultur gintza mailako zailtasunak erronka politik izaten dira. Zailtasun finantzarioak dira loa kentzen dutenak. Zoritxarrez, lorik bako gauak sarri-sarri izaten ditugu. Udalaren eraikin bat berri behar izan genuen, bazkideen ekarpenekin eta maileguekin. Ia milioi bat eta erdi euro izan ziren, Durangoko Udalaren diru-laguntzarik barik. 28 urtean bertan egoteko eskubidea daukagu, urtero 7.000 eurotik gorako alokairua ordainduta, eta urte horiek pasatutakoan eraikina udalarentzat izango da. Bitartean, inbertsioak eragindako zorrak ordaindu ahal izango ditugu, baina egitasmoak berak irabazi ekonomikorik ez du eragingo. Sortzen gabiltzan kultur aberastasuna ez dago dirutan neurtzerik, eta horrek bultzatzen gaitu aurrera.

*Inbertsioari aurre egiteko zer beste laguntza daukaguz?*

**J.-M.G.:** Orain hiru urte Durangoko Udalgaz hitzarmena sinatu genuen, inbertsioari eta azpiegiturari laguntzeko; ez ohiko laguntza horregaz aurten 40.000 euro jaso ditugu eta 2011n beste hiru urterako luzatzeko aukera onartu zuen udalak. Luzatuko duen uste sendoa daukagu; osterantzean, egitasmoa ez da bideragarria izango. Gure ustez, udalak inplikazio ekonomikoa izan behar luke hainbeste durangarrek sustatutako egitasmoan. Beste hainbat udalerritan inbertsio osoak bere gain hartu dituzte udalak, eta Durangokoak ere heldu behar lioke ardura horri.



# KULTURA<sup>></sup>

MUSIKA > ZIKLOA

## Musika maite duten guztientzako lau zita Kantuaren Kantoian

Imanol Ubeda, Aiora Renteria, Rafa Rueda eta Xabi Bandini aurten

Iazko udagoienean egin zuten Kantuaren Kantoia berbal-di-musikatuen lehenengo edizioa Durangoko Plateruenean, eta formatu beragaz—Jonan Fernandez kazetariak bideratuta— azaroko lau eguenetan izango dira aurtengo lau emanaldiak ere: Bide Ertzeaneko Imanol Ubeda, Zea Mays taldeko ahotsa den Aiora Renteria, Rafa Rueda, eta Kerobia taldeko Xabi Bandini dira gonbidatuak.

Entzuleek lau musikariok gertu-gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten

Iazko formatu eta filosofia beragaz, eta Jonan Fernandez gidariak dioskunez, “entzuleek musikariak gertu-gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten” antolatu dute. Distantzia fisikoari dagokionez dira saiook gertukoak, eta Fernandezek nabarmentzen duenez, baita “musikariek barru-barruan dituzten kezken isla diren kantuak direlako

zikloaren ardatza” eta protagonista nagusi.

“Musikatik harago joateko balio dezaketela halako emanaldiek” esan digu Rafa Rueda musikariak ere: “badago publiko bat, lauon musika oso gustuko izan ez arren, berbal-dian eskaini dezakegunagazko interesa badaukana”. Zentzu berean, “zikloa ez da musika-zaleentzat edo parte hartuko duten lau musikariren fan amorratuentzat bakarrik egokia”, dio Fernandezek: “solasaldietako gaiak erabat unibertsalak dira”.

Lau musikarion lana hurbilagotik jarraitzen dutenek bestalde, plazaratu berri dituzten diskoetako (Bide Ertzean taldearen *Don Inorrez*, Zea Mays-en *Era*, eta Kerobiaren *Ontziak*) kantak giro intimo horretan bilduta entzuteko aukera da Plateruenekoa.

Kantuak idazteko baliatzen dituzten metodoak, eta euren ibilbidean zehar bazterrean utzitako piezen (inoiz jende aurrean abestu bakoak) edota beste zenbait kantaren hasierako txinpartak zelan sortu ziren azalduko dute Kantuaren Kantoian sortzailak. Iaz legez, eguenetan, 20:00etan dira doko sarrera duten Kantuaren Kantoia zikloko saioak, azaroak 4, 11, 18, eta 27an. ■ I.E.



Zikloaren iazko lehenengo saioan, Anari, Jonan Fernandez eta entzuleak.

J.Barrenetxea



**Imanol Ubeda • azaroak 4**

**Bakarrik aritzeak zer sentsazio?**

Egia esan ez naiz bakarlarisentitzen. Deabruak Teilatuetan taldearekin hasi nintzenetik, taldean aritu naiz beti. Dese-roso sentituko naiz (dagoeneko halaxe

nago...) zentzu horretan. Karlos bateria-jotzailea eta Joni baxu-jotzailea faltan botako ditut, baina ekitaldia puntuala, bakarra, berezia izango da, eta horrek asko sosegatzen nau.

**Pentsatuta daukazu erreperitorioa?**

Zorretan nago testu batzuekin eta sekula argia ikusi ez duten doinu batzuekin... Bazterrean alboratuta utzi ditugun kantu horiek eskaini nahi nituzke. Abestuko ditudan kantu guztiak argitaratu gabeak izango dira. Joseba Sarrionandiak itzulitako poema naufragu batekin hasiko naiz, eta Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarriren poemekin aspaldi egin nituen kantuak ere abestuko ditut.



**Aiora Renteria • azaroak 11**

**Antzeko esperientziarik izan duzu?**

Orain urte bat edo bi Harrapazank programan antzeko emanaldia antolatu zuten Bilborock-en, eta kantuak eta azalpenak tartekatuta genituen han ere.

**Gustura sentitzen zara halakoetan?**

Bai, interesatea da batez ere jendeak ere parte har dezakeelako; zer pentsatzen duten, zer kuriositate daukaten... Publikoagaz harreman oso zuzena sortzen da. Gauza berezi eta oso interesatea izan daitekeela uste dut.

**Bakarrik zatoz Platerueneora?**

Zea Mays-eko gitar-joleagaz joango naiz. Lehen gitarra jotzen nuen, baina taldeagaz hasi nintzenetik alboratua daukat, eta nahiago dut berak lagunduta jardun.

**Pentsatuta duzu erreperitorioa?**

Zea Mays-en disko berriko hiru kanta joko ditugula erabakia daukagu, eta abesti zaharragoren bat ere bai.



**Rafa Rueda • azaroak 18**

**Pentsatuta daukazu erreperitorioa?**

Oraindik asko zehaztu barik daukat kanten zerrenda, baina poesiaren eta musikaren harremana ardatz moduan hartuta jardutea da buruan darabildan ideia.

Oraindik nahiko airean; zehazteke daukat erreperitorioa, baina.

**Antzeko emanaldietan jardun duzu?**

Elkarrizketatzailer batez ere, baina ikasketxe eta euskaltegietan jardun izan dut kanten sorkuntza eta bilakaeraren gainean halako berbal-di-musikatuetan.

**Gustuko duzu zure lanaz berba egitea?**

Musikaren mundua desmitifikatzeko modu bat dela uste dut. Kontzertu edo disko baten atzean dagoen mekanika askotan ezezaguna du publikoak, eta horregatik uste dut positiboa dela horretaz berba egitea. Gure lana gehiago eza-gutarazteko era bat da, eszenatokiaren liluraren atzean dagoena bistaratzekoa.



**Xabi Bandini • azaroak 25**

**Talde barik, bakarrik jarduteak zer sentsazio eragiten dizu?**

Bakarrik jotzeak lasaitasun handiagoa ematen dit askotan, dena nire gitarra eta ahotsean zentratzen baitut. Normalean

relajantea, balsamikoa izaten da.

**Zer kanta joko duzun erabaki duzu?**

Oraindik ez dut erabat erabaki, baina gutxi gora behera argi daukat. Kerobiaren ibilbideko zenbait kanta joko ditut, eta aurreko beste kanta batzuk ere bai; urteak daramatzat kantu horiek jotzen eta, egia esan, ez naiz aspertzen.

**Joan zen ostiralean jo zenuten Plateruenean. Zer moduz joan zen?**

Biraren hasierako kontzertuak beti izaten dira gogor xamarrek (oxidazioa eta nerbioak kendu arte), baina iruditzen zait jendeak disfrutatu egin zuela eta giro potentea sortu zela joan zen ostiraleko Durangoko kontzertuan.

MUSIKA > KONTZERTUAK

# Urri eta azarorako hiru emanaldi dakartza Musika Hamabostaldiak

Les Sacqueboutiers talde frantsesaren antzinako musikak zabalduko du egitaraua, bihar

Urriaren 30eko San Agustín kulturguneko Les Sacqueboutiers taldearen antzinako musika emanaldiak zabalduko du Durangoko XXI. Musika Hamabostaldia. Musika egiten hiru hamarkada diharduen taldea da Frantziako Tolosakoa, eta metalezko antzinako haize-instrumentuak baliatzen dituzte XVII. mendeko musika eskaintzeko.

Azken hogeitau urtean jorratutako bideari jarraituz, musika klasiko da Bartolome Ertzilla Musi-

ka Eskolak antolatzen duen zikloaren ardatza. Oinarri horretatik abiatuta baina, askotariko formatu eta estiloak ekarri dituzte urri eta azarorako ere. Biharkoaren ostean, azaroaren 7an eta 14an dira zikloko beste emanaldi biak.

Lehenengoa bihar, eta azaroaren 7 eta 14an beste emanaldi biak

Nafarroako musika erakunde zaharrenak diren Iruñeko Katedralako orkestrak eta abesbatzak eskainiko dute Musika Hamabostaldiaren bigarren emanaldia: Andra Maria elizan, 19:00etan da azaroaren 7an, bigarren hitzordua.

Oboea jotzen duen Eduardo Martínez Caballer valentziarrak eta Hardgrave soka laukoteak azaroaren 14an, Kurutze Santuaren ermitan eskainiko duten kontzertuak itxiko du aurtengo musika hamabostaldia Durangon. ■ I.E.



Hamazazpigarren mendeko musika jotzen du Frantziako Tolosako Les Sacqueboutiers taldeak.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

# Amurizak eta Eneko Abasolok kantatuko dute Igorreko etziko saioan

Bizkaiko Bertsolari txapelketako laugarren kanporaketa da domekakoa, eta eskualdeko bertsolari biok jardungo dute

Urriaren 31n, Igorreko kiroldegian jokatu dute sei bertsolari bizkaitarrek txapelketako laugarren kanporaketa. Bizkaiko beste eskualde batzuetako bertsolariekin lehiatuko dira, udaberriaren Durangaldeko txapela jantzi zuen Miren Amuriza berriztarra, eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iurreta-

Urriaren 31n Igorreko kiroldegian da laugarren kanporaketa



Miren Amuriza, udaberriko Durangaldeko finalean kantuan.

rra. Domekan, 17:30ean da bertsolarien jarduna entzun gura duten guztiendako hitzordua.

Durangaldeko bertsolari biek, Peio Ormazabal, Ortzi Garitano, Joanes Igeregi, eta Beñat Vidalek kantatuko dute Igorreko saioan. Guztiei gaiak ematen, Leire Aurrekoetxeak jardungo du.

Laurehundik gora entzuleren aurrean jokatu zuten joan zen asteburuan hirugarren kanporaketa Aulestin, eta Ibon Ajuria gernikarrak batu zuen puntu gehien: finalurreko saioetan jarduteko txartela lortu zuen, horrela.

Horrenbestez, dagoeneko hiru kanporaketa saio jokatu, Bizkaiko Bertsolari txapelketaren finalurrekoetan, Oihane Bartra bilbotarrak eta Jone Uria algortarrak ere kantatuko dute. Kanporaketa saioetan batutako puntuen arabera osatuko da gero, finalurrekoetarako zerrenda.

Azaroaren 7ko saioan ere kantatuko dute eskualdeko bertsolariek

Domekakoaren ostean, azaroaren 7an Romoko kiroldegian izango den azkenengo kanporaketan kantatuko dute Durangaldeko beste hiru ordezkariak: Gorka Lazkano berriztarra, Eñaut Uruburu abadiñarrak eta Beñat Ugartetxea mallabiarrak. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Julián Bakedano, Zinemagilea



## Carrière eta euskaldunak

Literato aipagarria da Jean-Claude Carrière idazle eta gidoigile frantsesa (Colombières-sur-Orb, Hérault 1931). Luis Buñuel, Louis Malle, Volken Schlöndorff eta Milos Formanentzako idatziriko gidoiek egin zuten ezagun. Bere sorkuntza literario zabaletik nabarmentzeko da *Le Cercle des menteurs*, eta liburu horren bigarren atalean ageri da *biolin-jole euskaldunak* izeneko ipuin hau:

Doinu berezi eta erritmo nahiko geldokoa da umore euskalduna. Datozen lerrootako eszena, erantzunen artean geldialdia eginda imajinatzea komeni da.

Tren batean sartzen dira gizon bi, eta aurrez aurre jesarritan, isilik ematen dute tarte bat. Noizean behin paisajeari begiratzen diote. Azkenean, galdera botatzen du bata:

- Eta zu, nondik zatoz?
- Bilbotik, eta zu?
- Donostiatik.
- Eta zertan egiten duzu lan?
- Musikaria naiz.
- Ni ere musikaria naiz —dio bilbotarrak—. Zein instrumentu jotzen duzu ba?
- Biolina jotzen dut —dio donostiarrak—.
- Nik ere jotzen dut biolina —dio besteak—.
- Hara!
- Bai.

Jarraitu aurretik tartetxo bat hartzen du gizonak:  
- Ama Birjinaren estatuaren begietatik behera negar malakoak jausten ikusten dira biolina jotzen dudanean.

- Ba lehengoan —dio Donostiarrak—, elizan jo nuenean, gurutzetik jaitsi eta besoak nigana zabaldua etorri zen kristoa, eta esan zidan: "utzidazu besarka zaitzadan! Nire amari Bilbon negarra eragiten dion kirtenak baino askoz hobeto jotzen duzu zuk!"

LITERATURA > LEHIAKETA

# Indarkeriaren kontrako narrazio labur eta olerkiak

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako kontakizun laburren eta olerkien lehiaketa antolatu dute Durangon

Durangoko Berdintasunerako Kontseiluak azaroaren 25eko egunaren harira antolatzen duen lehiaketa da, emakumeenganako indarkeria gaitzesten duten olerki eta kontakizun laburren lehiaketa; azaroaren 2ra arteko epea dute interesdunek euren lanak Durangoko Pinondoko Andragunean aurkezteko.

Azaroaren 2a arteko epea dago lanak lehiaketara aurkezteko

Ikastetxeetako ume eta gazteen zein helduen sailak

Durangoko ikastetxeetako ume zein gazteek, eta hemezortzi urtetik gorako herritarrek dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Lau sail bereizitan antolatu dute lehiaketa: DBHko lehenengo eta bigarren mailak, DBHko hirugarren eta laugarren mailak,

17 eta 18 urte artekoak, eta 18tik gorakoak, dagokien taldeagaz lehiatuko dira.

Euskaraz zein gaztelaniaz idatziriko testuak aurkeztu ahaliko dituzte parte hartzaileek, eta antolatzaileek azaldu dutenez, egileak testuan burutzen duen gogoetaren sakontasuna eta gaiaren lanketa baloratuko dituzte sariak banatzeko epaimahaiak.

**Sariketa Andragunean**  
Azaroaren 18an emango ditu epaimahaiak irabazleen izenak jakitera, eta azaroaren 23an, 18:30ean Durangoko Pinondo Etxeko Andragunean egingo dute sari-banaketa ekitaldia.

Liburu-sortak izango dituzte sari hemezortzi urtetik beherako irabazleek, eta 300 euroko saria izango dute, bestalde, 18 urtetik gorako sailean irabazle izendatutakoek. ■ I.E.

Azaroaren 23an, 18:30ean Pinondo Etxean, sari-banaketa

IKUSENTZUNEZKOAK > LEHIAKETAK

# 24 Ordu Digitalean Elorrion eta ikus-entzunezko rallya Ermuan

Asteburu honetan hasiko da Ermuko lehiaketa, eta datorren asteburuan da Elorrikoa



lazio 24 Ordu Digitalean lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Elorriko Arriolan. K.Aginako

**A**zaroaren 5ean eta 6an, Elorriko Arriola antzokian izango da 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren bosgarren edizioa. Hain zuzen, datorren barikuan, azaroaren 5ean, 17:00etan ipini dute ikus-entzunezko rally elorriarrear parte hartzeko hitzordua.

Biharamunera arteko tartea —azaroaren 6ko arratsaldera arte— izango dute parte hartzaileek euren ikus-entzunezko lanak osatzeko, eta Elorriko Arriolan egingo dute, ondoren, sari-banaketa ekitaldia. Banatuko duten sari handiena 700 eurokoa izango da, eta 500 euroko beste lau sari ere banatuko dituzte Elorriko 24 Ordu Digitalean lehiaketan.

Elorriko lehiaketaren aurretik, asteburu honetan abiatuko dute, bestalde, Topagunea euskara elkarten federazioak antolatzen duen ikusentzunezko lehia-

keta: bihar hasiko da, eta Ermuan egin dute hitzordua. Seigarren urtea da Topaguneak Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya antolatzen duena, eta berritasun nabarmenagaz datoz gainera, aurten.

**Lau egunetako Kameratoia** Aurreko edizioetan bezala, edo Elorriko lehiaketan moduan lana burutzeko egun bakarra barik, lau egun izango dituzte bideoa grabatu, editatu eta aurkezteko Topaguneak antolatzen duen Kameratoia lehiaketa honetan parte hartzen duten sortzaileek.

Seigarrenez antolatu du ikus-entzunezkoen rallya Topaguneak

Parte hartzaileek sarritan eskatu ei diete kalitate gehiagoko lanak aurkeztu ahal izateko, lanak burutzeko denbora gehiago, eta eskariak aintzat hartu ditu Euskara Elkarten Topagunea federazioak. Urriaren 30ean hasiko da lehiaketa Ermuan, eta egun horretan jakingo dute lehiakideek zeintzuk diren bideoetan erabili beharreko gaia eta ezaugarriak.

Bihartik azaroaren 3ra arteko epea izango dute sortzaileek lanak aurkezteko, eta azaroaren 6an egingo dute sari-banaketa. ■ I.E.

Azaroaren 5etik 6ra arteko 24 ordu, lanak osatzeko Elorrion

Lehenengo saria, 700 eurokoa izango da, eta 500eko beste lau daude

PINTURA > ERAKUSKETA

## 'Sentsazioak' pintura erakusketa Berrizko Kultur Etxeko sarreran

Urriaren 31ra arte izango dira Diana Anitua berriztarraren margolanak Berrizko Kultur Etxeko sarreran, erakusketan



Urriaren 31ra arte, domeka honetara arte, dago Berrizko Diana Anitua bizilagunaren arte ederretako irakaslearen margo-lanen erakusketa Berrizko Kultur Etxeko sarreran. *Sentsazioak* izenagaz bataiatu du Anituak bilduma, eta urteetan margogintzan burututako lanaren erakusle da.

Gaiei zein baliatutako teknikei eta formatuei dagokienez, denerikoak dira *Sentsazioak* erakusketan bildutakoak. Aldameneko argazkian jasotakoak, esaterako, tamaina handiko koadroak dira; zuri-beltzekoak eta erliebeekin jokatuta osatutakoak.

Erakusketa osatzen duten koadroen artean, baina, formatu txikiagokoak eta oso kolore bizikoak diren koadroak ere badaude: irudiak modu abstraktuan zein figuratiboagoan jasotzen dituztenak. Domekara arteko tartea dago, beraz, margolari berriztarraren margolana ezagutzeko. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUA

## Maria Berasarteren fadoak Zornotza Areton entzungai

Urriaren 29an, 21:00etan, Zornotza Aretoan aurkeztuko du Maria Berasarte abeslariak bere lehenengo diskoa

Donostian jaioa da urriaren 29an, gaur, 21:00etan hasita, Zornotza Aretoan 2009an kaleratu zuen *Todas las horas son viejas* lehenengo diskoa aurkeztera datorren Maria Berasarte abeslaria.

Portugalgo hiriburuko itsasadarreko doinuek harrapatuta bizi da Berasarte orain hamabi urte deskubritu zituenetik, eta fadoa da, hain zuzen ere, gaur aurkeztuko duen lanaren oinarri. Lisboako Alfama, Mouraria edo Bairro Altoan sortutako doinu sakonak eta Tiago Torres da Silva poetak gazteleraz idatziriko berbak eskainiko ditu Zornotzan.

Ara Malikian, Iñaki Salvador eta Javier Limón lako musikari handiekin lan egiten urteak eman ondoren, iaz abiatu zuen Berasartek bakarkako proiektua. ■ I.E.



**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

URRIAK 29 20:00etan • Sarrera doan  
AGURRIK GABEAK. OROIMEN EKITALDIA

URRIAK 30 19:00etan • Sarrera doan  
AIKO ERROMERIA. DANTZALDI IBILTARIA

URRIAK 31 21:30ean • Sarrera: 12-15euro  
PERKELE + AGGRESSIVE COMBAT + DOUBLING BOYS

AZAROAK 4 20:00etan • Sarrera doan  
IMANOL UBEDA. BERBALDI MUSIKATUA

AZAROAK 5 22:00etan • Sarrera doan  
ALICE & THE BLACK FEET. KMON SESSION

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

**LES SACQUEBOUTIERS**  
Ensemble de Metales antiguos de Toulouse

XXI. Musika hamabostaldia  
Urriak 30 • 20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**HITZ**  
Liburudenda

11:54 601 07 76 Artekale, 14 Durango

# DANBAKA >

Danbakaren laugarren edizioa abian da. Barikuan egin zen Elgetako Espaloia antzokian lehenengo kontzertua; aurtenera, maila handiko kontzertuak ikusiko ditugula argi geratu zen.

## Gaztetasuna eta indarra

Oñatiarrek estreinatu zuten Danbakaren laugarren edizioa lehenengo gaua. Formatu akustikoan hasi zuten gaua: abeslaria eta gitarra aulki batean eserita eta balada gozo batekin. Hortik aurrera, indartsu jardun zuten. Metal melodikoa egiten dute Black Riverrekoek eta gazteak izan arren sekulako indarra erakutsi zuten. Bigarren abestirako lehenengo ilarara jende mordoxka gerturatzea lortu zuten. Bigarren taldearendako Espaloia berotuta utzi zuten oñatiarrek.

## Punka bete-betean

Bergara, Arrasate eta Soraluzetik punk-rock doinuak ekarri zituzten Despreziokoek. Jarraitzaileak hasieratik izan zituzten aldamenean, lehenengo ilaran dantzan. 80ko hamarkadan Euskal Herrian jorratu zen punk-rocka ekarri zuten gogora, eta baita doinu ilunagoak ere; siniestroagoak. Hirukotea izanda ere indarra erakutsi zuten: bat-batekotasuna, amorrua eta gaztetasuna. Abesti motzak eta zuzenak egin zituzten, salaketa eta umorea tarikatuz.

## Jarraitzaileak, zorutzen

Gaueko talde bateranoaren txanda etorri zen ondoren: Bergarako Lord Witch. Taula gainera igo baino lehen jarraitzaileak dagoeneko zain zituzten, euren taldearen izena oihukatzen. Danbakara aurkezten diren bigarren aldian da, eta bergararrak nobedadeekin etorri dira: teklatu gehitu diote taldeari eta abeslari berria dute, orain arteko gitarra eta frontmanari laguntzen. Lord Witchekoek zoramena ekarri zuten Espaloira: lehenengo ilarak jendez lepo eta guztiak kontzertuan zeharo sartuta. Heavy-rock klasikoak egiten duen talde bergararrak argi utzi zuen sekulako eskarmentua duela.

## Alemaniko elektronika

Musika elektronikoarekin amaitu zen gaua. Danbakan orain arte entzungabeko proposamena ekarri zuten La-Toxek, ikusleak Alemaniara eramanez. Gostura hartu zen nobedadea eta txalo eta animu asko entzun ziren Txusentzat.

## Oñatiar eta bergarar asko Espaloian

Danbakaren laugarren edizioa giro ezin hobearrekin hasi da. Barikuan Espaloia jendez bete egin zen hasiera-hasieratik. Oñatiko Black Riverrek eta Bergarako Lord Witchek jarraitzaile asko eraman zituzten Elgetara. Dena dela, besterik gabe Danbakak eskaintzen duen musika ikuskizunaz gozatzera joan zirenak ere asko izan ziren; urteroko jarraitzaileak, Debagoieneko eta inguruko musikaren jarraitzaileak. Lehenengo izateko ez zen hoztasunik sumatu, eta lehenengo kontzertutik jendea dantzan ibili zen lehenengo ilaratan.

# Punka, heavya, metala eta elektronika gau berean

Barikuan hasi zen Elgetako Espaloian Danbaka musika lehiaketaren laugarren edizioa

Jarraitzaileak hasieratik taldeen aldamenean egon ziren; lehenengo ilaran dantzan



## BLACK RIVER | Oñati

**Adituak esana** > "Nahiko ondo ikusi ditut. Abestiak ondo landuta eta estrukturatuta daude. Taula gainean ere eroso ikusi ditut, agian kontzertu gehiago ematea falta zaien arren. Euskal Herrian ohikoa den trash-metal edo heavy metala egiten dute". **Mikel Alvarez (Aby Kem taldekoa)**

**Ikusleak esana** > "Sekula ikusi gabe neukan taldea. Harritu naute, lehiaketa bat izanda modu akustikoan hasi direnean; baina gustatu zait. Ahotsen nahasketa ere gustatu zait. Oso biziak dira. Jarraitu beharreko taldea da". **Imanol Soriano**

**Kazetariak esana** > "Lan polita egin dute oñatiarrek. Kontuan izan behar da lehiaketako eta gaueko lehenengo taldea izan dela eta horrek dakarren tentsioa. Oso eroso ikusi ditut taula gainean". **Arritxu Barruso**

**Taldekideak esana** > "Oso pozik gaude. Emateko geneukan dena eman dugu, eta jendeak erantzun du. Momentu polita izan da. Oñatitik etorritako jendeari eskerrak ematen dizkiot. Jarraitzaileak ondoan izateak asko motibatzen gaitu. Danbakan parte hartzea zen gure helburua, ikusiko dugu zer gertatzen den". **Kepa Alberdi**



## LORD WITCH | Bergara

**Adituak esana** > "Urteak daramatzate taula gainean eta nabaritzen da eskarmentua dutela. Asko gustatu zait. Eszenatokia ondo aprobeztatu dute eta etxeko lanak oso ondo egin da etorri dira: abestiak entseatuta eta dena prestatuta. Gaintzeko taldeetan ez dut hauek erakutsi duten eskarmentua ikusi". **Mikel Alvarez**

**Ikusleak esana** > "Ardoa bezala hauek ere urteekin hobetzen doaz, zalantzarik barik. Bi taldekide berriek, gainera, norabide berri bat eman diote taldeari. Jorgek eta Eugenek egin duten punteoa asko gustatu zait". **Imanol Soriano**

**Kazetariak esana** > "Argi geratu da sekulako eskarmentua dutela. Giro bikaina ipini dute. Espaloia bete da eta dantzan ipini dituzte jarraitzaileak. Eszenaratzea oso txukuna izan da, dena ondo prestatuta ekarri dute". **Arritxu Barruso**

**Taldekideak esana** > "Nekatuta bukatu dut, baina pozik nago eman dugun kontzertuarekin. Jendeak oso ondo erantzun du. Arro egoteko moduan gaude, oso jarraitzaile fidelak ditugulako. Danbakara gatozen bigarren aldian da. Guretzat sekulako promozioa eta aukera da hemen egotea". **"Euge"**



## DESPREZIO | Bergara-Soraluze

**Adituak esana** > "Punk-rock argi eta garbia egiten dute. Badirudi azkenean Danbakan sartu dela punka ere, eta hori gustatzen zait. Gitarra-jotzaileak solo asko egiten ditu eta kolore asko ematen die abestiei; hori punkean berritzailea da, beti ere gure ibarrean ohikoa den punketik irten gabe". **Mikel Alvarez**

**Ikusleak esana** > "Punkaren garai onenetara eraman gaituzte. Uste dut lehiaketak ematen duen denbora proposa dela eurenentzat. Nabaritzen da oso azkar jotzera ohituta daudela. Letrak, gizartearekin oso kritikakoak. Gustatu zait". **Imanol Soriano**

**Kazetariak esana** > "Kontzertu dibertigarria izan da. Taula gainean disfrutatu egin dute, eta jendearengana iristea lortu dute. 80ko hamarkadako Euskal Herriko punk gogorra ekarri digute Despreziokoek gaur Elgetako Espaloira". **Arritxu Barruso**

**Taldekideak esana** > "Oso gustura egon gara taula gainean. Bero gehiegi zegoen, baina oso ondo. Akats batzuk ere egin ditugu, baina suposatzen dut normala dela. Lagunak izan ditugu lehenengo ilaran eta hori ere garrantzitsua da. Garrantzitsua da oso ondo pasatu dugula. Ikusiko dugu zer gertatzen den". **"Manzana"**



## LA-TOX | Bergara

**Adituak esana** > "Asko gustatu zait. Kritika txiki bat egitearren, beharbada makinek protagonismo gehiegi dute, eta ahotsa faltan bota dut apur bat. Oso proposamen berritzailea eta interesgarria iruditzen zait. Danbakan originaltasuna sarituko balitz, gauzak hemendik joan beharko liriteke". **Mikel Alvarez**

**Ikusleak esana** > "Ez ohikoa den musika estilo bat egiten dute, baina gustatu zait. Berlineko tekno gauak ekarri dizkit gogora. Eszenaratzea berezia izan da. Musikalki oso ondo ikusi ditut. Dena dela, akaso esperimintalegia". **Imanol Soriano**

**Kazetariak esana** > "Askorendako ezezaguna den proposamena. Danbakan entzun gabe geneukan estiloa da, eta gustura hartu dut. Eszenaratzea oso kurioso. Proposamen ausarta, baina interesgarria". **Arritxu Barruso**

**Taldekideak esana** > "Oso pozik gaude eskaini dugun kontzertuarekin, eta batez ere ikusleek izan duten erantzunarekin. Uste dugu gustatu zaiela eta oso pozik gaude; ez genuen horrelako harrerarik espero. Kritika gehiago jasoko genituela uste genuen. Oso gustura egon naiz taula gainean". **Laida Ballesteros**

BABESLE NAGUSIA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



# IRITZIA >

Sei hankako mahaia



Niko Moreno  
Ezker Abertzalea

## Gutunak

### Irailaren 24an Tabirako ez gora, ezta aurrera ere .

Tabirakoko presidente jauna,

Aitorpen batekin hasi beharra daukat: ni ez nintzen egon irailaren 24an egin zenuten 2010-2011 denboraldiko aurkezpen ekitaldian; beraz han gertatutakoaz dudana informazioa bi lekutatik datorkit: bertara joan zirenek kontatu didatena eta zuk zeuk Gor-ka Barruetabeñari erantzuteko idatzi zenuen gutunean adierazitakoa.

Argudio pare bat ematen dituzu ekitaldi hartan euskarak izan zuen ez-presentzia argudiatzeko. Batetik klubean hartu zenituzten euskarazko speakerren eskaintzak zuen aurrekontu eta ahalmenetik urrun omen zeuden eta bestetik, idatziz diozunez, boluntario bati enkargatu zenioten speakerrak esandakoak euskaratzeko baina horrez gain beste zeregin batzuk ere eman zenizkioten boluntario horri eta azkenean jakina, lehentasunak jarri behar direnez... euskarazko itzulpena desagertu egin zen.

Hara!, datorren urtean nik neukegingo dizuet, hala nahi baduzue, euskarazko speakerrarena baina hori bai, baldintza batekin: itzulpenik ez da izango; izan ere, euskarak aspalditxo erakutsi du edozein arlotan duen sorkuntzarako gaitasun bikaina. Eta atrebentzia handiegia ez bada proposamen bat ere egingo dizuet: speaker nagusiak euskaraz egin dezake eta beste norbaiti (boluntario bati??) eman erdarazko itzulpena egiteko ardura. Edo bestela, saskibaloiaren kasuan gauzak NBAtik markatuta datozenez (zuk esandakoa da), hitzaldiak ingelesez egin daitezke!!!!

Tabirakok azken urteotan euskararekiko hobekuntzan egin dako adibideak ere ematen dituzu; eskertzekoak denak inolako zalantza barik; baina irailaren 24an huts egin zenuten euskararekiko hobekuntza ahaleginean.

Prest zaudete gainera euskarari bultzada emateko sortu daitezkeen kanpainak babesteko (hauek ere zure hitzak). Ederto, benetan. Halere, berriro diotsut, irailaren 24an ez zenioten euskarari bultzadarik eman eta hori baino gehiago, ez zenuten inondik inora erakutsi euskara zuena ere badela (hauek berriz zure hitzak).

Amaitzeko, zure gutunean "hizkuntza maitea" darabilzu euskarari buruz hitz egiteko. Jauna, 2010garren urtean euskara benetan maite dugula ez da erakusten hitzekin bakarrik, ekintzekin baino. Eta onartu behar didazu, irailaren 24an, Tabirakok huts egin ziola euskarari eta euskaraz (ere) bizi nahi dugunoi.

Besarkada bat,

Elixabete Larrinaga Artetxe - Durangoko bizilaguna

### Ijorreta, jantzariak eta neskak

Ijorretarrak, jantzariak eta neskak gara behean sinatzen dogunok eta horregaitik, Anboton argitaratutako hainbat gutun eta zutaberi buruz argibide batzuk emon gura doguz. Ijorretako egoera ezagutzen ez dabenei azalpen batzuk emon beharrean gagozala uste dogulako.

Anbotoko gutun horreek irakurrita, Ijorretako neskoek dogula jantzan egiteko aukerarik dirudi; eta hori ez da horrela.

Egia da. Bakixan, Oromiñon... meza ostean egiten dabe nes-

kek be jantzan. Goizez bakarrik egiten da jantza saioa eta horregaitik egiten dabe jantzari guztiek meza ostean euren saioa. Sanmigeletakoa ezberdina da. Goizean agintariekin kalejiran mutilak bakarrik joaten dira. Egia. Baina badakigu neskei egin jaken joateko proposamenik? Jantzan be mutilek bakarrik egiten dabe goizez. Egun bietan, ordea, arratsaldez neskek, batean Aurreku-Atzeskua egiten dabe eta bestean Gorulari jantza. Urteak eta urteak egin doguz jantza taldean eta jai batzordean parte hartzen, lan egiten, antolatzen... eta guk sekula ez dogu goizez jantzan egiteko preminarik sentidu.

Urte askotan, neskok Donien-Atxa altxatzeko erabilten diran soketako batean - abade-etxeokan - bakarrik hartu dogu parte eta horregaitik jarri geuntsan, guk geuk nahi izan gendualako, "nesken soka" edo "andren soka" izena. Geu be pozten gaitu barriro "abade-etxe" soka izateak, andrazkoak beste soketan be bagabilzala esan gura dau horrek eta.

Ez dakigu honek idatzita lortu gura dan helburua zein dan, hainbat izan leitekez eta; mutilek egiten dabezan jantzak neskek egitea? Mutilek egiten dabezan ekitaldi guztietan neskek parte hartzea?

Gorulari jantzen 25. urteurrena ekarri gura dogu gogora. Orduan egin ziran ospakizunetarako, momentuko taldeak, Urriena bezalako jantzaldira bat antolatu gura izan eban Gorulari jantzekin. Hau da, Ijorretan jantzok berreskuratu ziranetik ordura arte Gorulari jantzan aritutako guztiok plazan alkartu, jantzan egin eta gero danok bazkari eder bat egitea. Baina jantzari batzuek (taratean neskak) momentu haretan egitea ez eben gura izan, nahiago ebela-ko beste era bateko ekitaldia egitea. Orduan aukera bat galdu arren, oraindik ez da berandu eta egin dagigun!!!

Argi daukagu jantzariengaitik, jantzenegaitik, ohiturengaitik, neskengaitik... Ijorretan hainbeste behar egin daben pertsonak minduz eta irainduz ez dogula ezer lortuko.

Badago zer aldatu, ez dogu dana ondo egiten danik esango, ez, baina Ijorreta herri txikia izanik hain gaxa be ez da jai- batzordeko kideren bat edo jantza taldeko arduraduna aurkitzea horrelako kezka azaldu eta batzar bidez konpontzeko.

Ez gaitez gure artean haserratu; azken batean, aitagaz ez bada nebagaz, edo gizonagaz haserratu beharko dogu eta!!!

A. Zuazo, A. Gerediaga, Z. Aldekoa-Otalora, L. Aldekoa-Otalora, G. Sopolana, O. Plazaola, I. Elorriaga, E. Areitio, I. Belar, M. Abasolo, E. Garitaonandia, A. Abasolo, L. Zabala, E. Badiola

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
**Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org**  
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

### Izan funtsa!

Funtsezkoak ei dira datozkigun hileak. Udal eta foru legeingintzaldien amaieraren hasieran gaude, eta horrek beti astintzen du errealitatea. Egindakoaren hausnarketa egiteko garaia da, eta egiteko iragartzekoa. Gainera, askoren begiak Ezker Abertzalearengan daude, legezkia izango ete den jakiteko irrikaz, horrek panorama sozial zein instituzionalean izan dezakeen eraginagatik.

Hala ere, badirudi oroimen urrikoak garela, eta zergatia azaltzen ahaleginduko naiz.

**Etorriko dena ez da izango eta pasatu dena ez da izan orain ez bagara. Hori da, benetan, funtsezkoa: oraina**

Funtsezkoak izan dira azken urteak ere, zeintzuetan, borrokaren bitartez, herri hau bere izaera moldatzen joan den. Euskal herri lege, nortasuna defendatu eta ondoko estatuen aurrean duintasunari eutsiz. Funtsezkoa da euskal herritarrok arlo guztietan gure burua antolatzeke erakutsi dugun gaitasuna ere. Funtsezkoa da, eraso guztien gainetik burua altxatzeko grina, eta asimilazio saiakera ororen aurrean honi aurre egiteko determinazioa. Eta funtsezkoak izan dira jendarteak egitura sozialak mugiarazteko egindako saiakerak, horietan ekarri baikaituzte egungo errealitatera. Finean, funtsezkoa dena da, iraganeko zein etortze dagoena.

Baina oraina ahazteko arriskua dugu, eta hori benetan da funtsezkoa. Herria egunero egiten da, ezer ez dago irabazita, eta den dena egunero egin eta eutsi behar dugu; gure lorpenak, eskaerak, erreibindikazio eta ametsak, egunero elikatu eta defendatu. Hori da benetako erronka: egunero eustea tentsioari, helburuak betetzeko eguneroko lana eta lan horretan jendarte osoa izatea.

Etorriko dena ez da izango eta pasatu dena ez da izan orain ez bagara. Hori da, benetan, funtsezkoa.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
2010eko urriaren 29a - 9. urtea - 392 zk.

Laguntzailea: Bizkaito Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak:


**Zuzendaria:**  
Jone Guenetxea.

**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.

**Administrazioa:**  
Itziar Belar, Miren Abasolo.

**Publizitatea:** Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugaldel.

**Maketazioa:** Ainhoa Arizmendiarieta.

**Testu zuzentzaileak:** Aitor Duñabeitia eta Igor Elortza.

**Argazkilariak:** Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

# Eskualdeko historiaren zati bat ASTOLA aldizkarian jasota



-k berriro ere azal erakar-garriarekin dakar Durangaldeko hainbat arlori buruzko ikerketa eta historia aldizkaria. Hasi fundizioek izan duten ibilbidetik, gero eskualdean egin ziren lehenengo bertsolari txapelketak aztertu, hurrengo Durangoko Kurutziaga gurutzearen irudi guztien analisi zehatza erakutsi eta amaitzeko Durangaldeko gaztetxeen errebaso zabala. Honek Durangaldeko historian murgilduko gaituzten 12 erreportajetatik lau adibide baino ez dira.

160 orrialde, dena koloretan, argazki zainduekin eta sekula argitara eman ez diren datuekin. Astola aldizkariaren laugarren zenbakiaren ezaugarri nagusiak horiek dira. Artikulu egileen artean, berriz, esperientziadun eta izendun lagunak daude: Igor Elortza bertsolaria, Jose Angel Barrio Loza katedraduna, Magdalena Sarrionandia EHUko irakaslea, Jose Julian Bakedano zinemagilea eta Iban Gorriti kazetaria. Argazkiak, artxiboetakoak salbu, Txelu Angoitia durangarrak egin ditu.

Astola aldizkaria Durangaldeko liburudenda nagusietan salgai ipini dute aste honetan. Iazko salneurriari eutsi diote: 5 euro. Gerediaga Elkarteak Durangoko Azokan izango duen gune berezian ere izango da Astola aurtan.

**astola**  
ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA  
4.zk 2010 5€

FUNDICIÓN, ARTE Y TECNOLOGÍA

BERTSOLARIAK 1950 – 1960

CRUZ DE KURUTZIAGA

GAZTETXEAK

## KURUTZIAGA GURUTZEA

EGILEA: JESUS MUÑIZ PETRALANDA  
Durangoko ondare historiko-artistiko esanguratsuenaren estiloa zein den azaltzen da artikulu honetan. Gurutzearen irudi guztiak ezagutzeko detaile-argazkiak ere lehenengoz argitaratu dira. Gurutzeak historian zehar izan dituen kokapen guztiak ere jaso dira.



## ARRAZOLAKO ETA AXPEKO MEATEGIAK

EGILEA: GARBIÑE AJA  
Txistu-hotsa, tutada bat entzutea nahikoa izaten zen meategiko trena hara eta hona zebilela jakiteko. Horretaz asko dakite Arrazolan eta Axpen. Meatzarien lana eta bizimodua zelangoa zen ezagutu daiteke erreportaje honetan. 1910. urtean Bizkaian izan zen huelga ere gogora ekarri dute.



### GAZTETXEAk Atik Zra

EGILEA: IBAN GORRITI

Durangaldeko gaztetxeen historia laburra eta bakoitzaren egungo egoeraren deskripzio zabala egin du. Horri lotuta, Jakue Pascual soziologia eta politika zientzietan doktoreak 80ko hamarkadan gaztetxeek bizi izan zuten loraldiari buruz idatzi du.



### 1950-60KO BERTSOLARI TXAPELKETAK

EGILEA: IGOR ELORTZA

"Isilik zeuden baina ez mutu" izenburu horrekin Bizkaiko lehenengo bertsolari txapelketak gogora ekarri ditu egileak, eta batez ere Durangaldean egin zirenak eta Durangaldeko bertsolariak. Txapelketan epaimahaiko izan zen Xabier Amurizak ere bere ikuspuntua idatzi du.



### FUNDIZIOA, ARTETIK TEKNOLOGIARA

EGILEA: JULIAN IZAGA

Fundizioek garrantzi handia izan dute Durangaldean. Fundizioen bilakaera laburtua eskaintzen du erreportajeak eta Durangaldean izan duten garrantzia azpimarratu. Argazkietan San Migel fundizioko langileak ikusiko ditugu, lurreta herrigunetik fabrika berrira joan orduko.



### ITURRI JAUREGIA

EGILEA: IGOR BASTERRETXE

Elixalde kalean nabarmena da Iturri Jauregia, gaur egun gaztetxea eta kultur etxea. Etxetzar honen historia eta bertako leinuaren nondik norakoak azaltzen ditu. Iturritarrek oraindik ere Berrio auzoan dute euren oinetxea.



### DURANGALDEA ETA ZINEMAGINTZA

EGILEA: JOSE JULIAN BAKEDANO

Eskualdeak zazpigarren artearekin harreman estuegirik izan ez badu ere, historian zehar Durangaldea zuzendari askoren plato bihurtu izan da. Gure eskualdean grabatu ziren filmeetan murgilduko gara erreportaje honetan.



### BARRUKO IBILBIDEAK

Durangaldeko bost lagunek txikitako edota euren gustuko bost leku erakusten dituzte: Rosa Mari Ostogain Berrizko alkate ohia, Mertxe Mujika AEK-ko koordinatzaile nagusia, Ustaritz Aldekoa-Otolora futbolaria, Enrike Huerta Natur Zientzien Museoko zuzendaria eta Jose Antonio Gisasola "Zelai" harrijasotzailea.



### MARTIN DE BERATUA

EGILEA: JOSE ANGEL BARRIO LOZA

Beratuatarrak hargin entzutetsuak izan ziren XVIII. mendean. Abadiñarrak sortzez, kanpandorreak eraikitzen egin zuten lan oparoa. Gaur egun Errioxa aldean ikusi daitezke Beratuatarren kanpandorreak. Kalerik ere eskaini izan zaie.



### ZALDIBARKO BAINUETXEA

EGILEA: MAGDALENA SARRIONANDIA

Zaldibarko herriak XIX. eta XX. mendeetan ur mineral medizinal iturburu egokiak izan zituen eta sasoirako eredugarri izan zen bainuetxea sortu zuten. Orduko argazki zaharrek inapainduta, bainuetxeak Euskal Herriatik kanpora izan zuen entzutea nabarmentzen da ikerketa honetan.



### OTXANDIOKO LIMITADUA

EGILEA: FERNANDO MARTINEZ RUEDA

Iraileko bigarren domekan otxandiarrek limitaduan zehar ibilbidea egiten dute. Baina zer da limitadua? Zergatik egon da mendeetan Otxandio eta Oleta arteko ika-mika? Horren jatorria eta auzia egun nola dagoen argituko duen lana da.



### MERIOAREN IBILBIDEA

EGILEA: JON IRAZABAL

Goiurian hasi eta Garai, Abadiño eta San Agustin Etxebarria zeharkatuta Elorrioren amaitzen den ibilbidean Durangaldeak antzina izandako antolamendu politiko eta soziala erakusten du ibilbide honek. Gerediaga Elkarteak bere garrantzia erakusteko ibilbide hau egokitu du.



# EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



www.euskolabel.net

### Eusko Labelaren K-rekin

Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

Kalitatea Fundazioa



Zu zaintzeko zaindua

- |   |  |   |   |  |  |   |  |                      |  |  |  |
|---|--|---|---|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|
| <b>Euskal Okela</b><br>Carne de Vacuno del País Vasco | <b>Euskal Esne Bildotsa</b><br>Eondeto Lechal del País Vasco | <b>Gernikako Piperra</b><br>Pimiento de Gernika | <b>Hegaluzea eta Hegalaburra</b><br>Ronín del Norte y Atún Rojo | <b>Euskal Baserriko Arrautza</b><br>Huevo de Caserío Vasco | <b>Euskal Baserriko Oilaskoa</b><br>Polla de Caserío Vasco | <b>Euskal Esnea</b><br>Leche del País Vasco | <b>Ibarrako Piparrak</b><br>Guindillas de Ibarra | <b>Eztia</b><br>Miel | <b>Euskal Tomatea</b><br>Tomate del País Vasco | <b>Arabako Patata</b><br>Patata de Alava | <b>Euskal Babarrunak</b><br>Alubias del País Vasco |
|---|--|---|---|--|--|---|--|----------------------|--|--|--|

## Eusko Labela: ona den seinale



Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

- |  |  |
|--|--|
| <b>Abadiño</b><br>• PINILLA HARATEGIA<br>TRAÑABARREN, 29-MATIENA | <b>Durango</b><br>• GALLASTEGI HARATEGIA<br>ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1 |
| <b>Zaldibar</b><br>• GALLASTEGI HARATEGIA<br>ZALDUASOLO PLAZA, 8 | <b>• INAKI HARATEGIA<br/>SASIKOA KALEA, 10</b>                     |
| <b>Otxandio</b><br>• GAZTAÑETA HARATEGIA<br>ARTEKALE, 25         | <b>• OKA HARATEGIA<br/>ANDRA MARI, 3</b>                           |

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

**Especializatuak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

hile honetako irabazlea:



**Nekane Gojenola (Traña-Matiena)**

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia" Anboto Astekaria Bixente Kapanaga, 9 48215 Iurreta

Hilero azken astelehenean saski bat zozketatuko dugu hurrengo produktuekin: kilo 1 Arabako Babarruna, pote 1 "Ibarrako Piparrak", pote 1 Ezti, Idiazabal gazta, botella 1 "Bizkaiko Txakolina", botella 1 "Arabar Errioxako Ardoa", botila 1 Arabar Errioxako Olio Birjina, Txakalinezko bonbol-kutxa 1 eta 30€ko txartel 1 Euskal Okelaz, Euskal Esne Bildotsaz edo Euskal Baserriko Oilaskoz trukatzeko.



# KIROLAK >

## 2.000 gaztetxo batuko ditu biharko Saskibaloia Jaiak Landako Gunean

8-16 urte arteko gaztetxoei zuzendutako jaiak bigarren aldia egingo du; Fernando Romay eta Bizkaia Bilbao Basket-eko jokalariek batzuk ere etorriko dira antolatzaileen esanetan



Iazko lehenengo aldian 1.200 lagun batu zituen guraso eta gaztetxoaren artean.

Iaz hasitako bideari jarraituz, Bizkaiko Saskibaloia Federazioak eta Bizkaia Basket Fundazioak II. Saskibaloia Jaiak antolatu dute zapatuetan Landako Gunean. Tabirako Baqué, Durangoko Udala eta Aldundia laguntzaile dituen ekimeneko lehenengo aldian 1.200 gaztetxok parte hartu zuten; aurten 2.000 batuko dira.

8 eta 16 urteko gazteei zuzendutako ekimena 10:00etatik 20:00etara guratuko da.

**Gurasoek seme-alabekin jokatu ahaliko dute Bi Belaunaldi Torneoan**

ko da eta gazteei zuzendutako askotariko ekintzak batuko ditu. Antolatzaileen esanetan, Fernando Romay ACBko jokalariek ohia etorriko da Landako Gunean. Romay iaz ere etortzekoa zen baina azkenean ezin izan zuen. Aurten sariak banatzeaz gainera, gaztetxoekin jolastuko du.

Ekintzen artean nobedade bat dago. Aurten gurasoek seme-alabekin batera jokatu ahaliko dute Bi Belaunaldi Tor-

### II. Saskibaloia Jaiak

**Non:**

Landako Gunea

**Noiz:**

Zapatuan, 10:00etatik 20:00etara

**Ekintzak:**

- Bi Belaunaldi Torneoa - 3X3 Txapelketa
- Trebetasun eta jaurtiketa txapelketa

**Antolatzaileak:**

Bizkaiko Saskibaloia Federazioa eta Bizkaia Basket Fundazioa

**Laguntzaileak:**

Tabirako Baqué eta Durangoko Udala

neoan. Aitak edo amak seme-gaz edo alabagaz bikotea osatuz, hainbat tokitatik jaurtiketak egingo dituzte minutu biko, ahalik puntu gehien lortu guran. Horrez gainera, beste lehiaketa mota bi ere egongo dira: hiru jokalariko talde txoen lehia eta trebetasun jaurtiketak. Ekintza hauetan aurretik izena emandakoek parte hartuko dute.

Saskibaloia jaiak osatzeko, gaztetxoentzako gaztelu puzgarriak eta bestelako jolas guneak —denak saskibaloia gainera— ere prest egongo dira goizetik iluntzera.

Bestalde, Tabirako Baquék stand bat ere ipiniko du bere produktuekin; taldeko kamisetak eta 50. urteurreneko bideoa salduko dituzte. ■ J.D.

## Murgoitio eta Garcia gero eta hobeto ari dira munduko kopan

Joan zen asteburuan munduko ziklo kross kopako bigarren lasterketa korritu zuten txekiar errepublikan Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio eta Xabier Garcia. Suitzako estreinakoan 37. geratu zen Murgoitio eta Txekiar Errepublikan 30. amaitu zuen, irabazlearengandik 3.24ra. Xabier Garcia 51. amaitu zuen, Suitzan baino hamar postu gorago. Kopako hurrengo proba Belgikan izango da azaroaren 27an.

Bestalde, Hirumeteko Dani Ruizek laugarren amaitu zuen Kantabriako lasterketan eta bera izan zen 23 urtez azpiko lehenengoa. ■ J.D.

## Galtzagorrik eta Prietok bigarren puntua batu dute

Lehenengo jardunaldian egin legez, banakako Bizkaiko Xake Txapelketako bigarren jardunaldian ere irabazi egin dute leray Galtzagorrik eta Alain Prietok. Galtzagorrik Alex Gonzalez menderatu zuen eta Prietok Javier Cuero. Asteburu honetan Alvaro Herrero —zazpigarren rankingean— eta Jon Anguloren —bigarrena rankingean— kontra jokatu dute Barakaldon.

Goren mailan dabilzan Durangaldeko beste ordezkari biek, Aitor Gallastegik eta Aitor Arabiotorrek, galdu egin zuten. Bihar Eneko Wu —bederatzigarrena— eta Karmel Galarzaren —12.a— kontra jokatu dute. ■ J.D.

## Etxeko sei puntuak lotzeko lehenengo oztopoa: Zarautz

Eibarretik hiru puntuak ekarrita, orain Tabiran partidu bi jokatuko ditu Durangoko Kulturalak

Amorebieta, Laudio eta Durangoko Kulturalaren erritmoari ezin dio beste inork eutsi oraingoz. Sestao River ahaltsuak ere berdindu egin zuen iragan asteburuan Beasainen kontra; ondorioz, Eibarri 0-2 irabazita, Durangoko Kulturalak lau puntuko aldetxo hartu dio sailkapenean. Amorebietak eta Laudio, aldiz, puntu bat goitik jarraitzen dute.

Orain, datozen asteburu bietan etxean jokatuko dituzten Zarautz eta Laudioen kontrako sei puntuak batzen saiatuko dira. Zarautz ez dabil fin etxetik kanpora eta garaipenak egingarria dirudi. Laudioen kontrako zale durangarren aurtengo lehe-

nengo hitzordu handia izango da. Jokalariek harmailetatik jasotako hauspoa izan daiteke lehia orekatua etxeko aldera bihurtu dezakeen faktorea.

Eibarri irabazteko ez zuten zaleen animorik behar izan. Zati bietako azken txanpan sartutako gol bana nahiko izan ziren. Ondorioz, Kulturala da hirugarren mailako talderik golegileena, 19 golekin. ■ J.D.

**Hurrengo asteburuan Laudio bigarren sailkatua etorriko da Tabirara**



Kulturalak Zarautz jasoko du bihar Tabiran. Kepa Aginako

## Etxeko garaipen biek arnasa eman diote Sasikoari

Sasikoak etxean jokatu dituen azkenengo neurketa biak irabazi ditu eta zulotik irtetea lortu du, nahiz eta oraindik beheko postuetan jarraitzen duen.

Lehenengo hiru jardunaldietan galdu ondoren, etxean Aretxabaleta menderatuz denboraldiko aurreneko hiru puntuak eskuratu zituzten. Ondoren, esku hutsik bueltatu ziren Rompiente taldearen kantxara egindako bisitatik, baina joan zen asteburuan 6-4 menderatu zuten Lauburu K.E./Ibarra. Asteburuan sailkapenean seigarren dagoen Burgos bisitatu dute. ■ J.D.

# Di-da lortu du Bereinkuak final-laurdenetako pasea

Sake luzea eta dejada zehatza nahikoa izan zituen Etxebarria 18-1 menderatzeko; Cafés Baquéko hurrengo txandan Elezkano du zain



Iurretako pilotalekuan lortu zuen final-laurdenetarako txartela Mikel Bereinkua gazteak.

**M**ikel Bereinkua (Duran-go, 15 urte) erraz lortu zuen, eguaztenean, Cafés Baqué pilota txapelketako final-laurdenetarako txartela, Etxebarria 16 urteko dimoztarrari 18-1 irabazita. Zer kontatu handirik bako partiduan sake luzea eta dejada zehatza nahikoa izan zituen aurkaria ernegatzeko. Ondorioz, bi eguazten barru, azaroaren 10ean, Abadiñoko pilotalekuan Elezkanoren kontra jokatu du finalerdietarako pasea.

Iurretako pilota eskolagaz jokatzeko duen Bereinkuak eskumako eskua minduta dauka, eta taktika garbiagaz kantraratu zen: luze sakatu eta erretoari dejada zehatzagaz erantzun. Aurretik pentsatutakoa ezin hobeto gauzatu zuen kantxan, eta dejadaz sei tanto eta sakez bost egin zituen: partidu erdia baino gehiago. Etxebarriak errestoa lura luzatu zuen

Eskua minduta dauka, baina aste bian osatzeko denbora nahikoa izango ei du

Behe-behetik hasita, lau kanporaketa gaindituta heldu da final-laurdenetara

## Berasaluzek Iker Arretxe arerio Eibarko Astelenan

Lau t'erdiko final-laurdenetarako txartela izango du jokoan berriztarrak astelehenean

Pablo Berasaluzek lau t'erdiko txapelketako final zortzirenetako kanporaketa jokatu du astelehenean, Domu Santu egunean, Iker Arretxeren kontra. Eibarko Astelena pilotalekuan irabaztea lortzen duenak Titin III.a trizioarra zain izango du final laurdenetan.

Joan zen asteburuan Pablo Berasaluzek oso erraz kanporatu zuen Mikel Olazabal areso-

Berriztarrak 22-3 irabazi zion Olazabali eta Iker Arretxek 22-14 Xalari

apurretan ere, Bereinkuaren beso luzeek indarraren legea ezarri zuten: "Egia esanda, ez nuen uste partidua irabaziko nuenik. Aurten jokatzeko ikusita neukan Etxebarria, eta kolpez ni baino gehiago zela uste nuen". Gozateak eta gerria ondo sarzteak ere asko balio du, baina.

Azpitarragaria da Bereinkuak orain arte txapelketako kadeteen mailan osatu duen bidea. Behe-behetik ekin zion, eta orain arte Bakaraldoko Garcia, Errioxako Calvo, Arabako Garcia eta Dimako Etxebarria kanporatu ditu. Elezkanoren kontrako partiduan zaratamoa-rrak irtingo du faborito, baina Bereinkua dituenak emateko prest dago final atarira heltzeko.

Zoritxarrez, durangarra dugu txapelketako gure ordezkari bakarra, Pradera mallabitarra txapelketatik kanpora geratu delako oraintsu. ■ J.D.

arra (22-3). Berriztarra zoli ibili zen tantoa amaitzerako orduan eta ederto nahastu zuen jokoan, baina Olazabalek ez zuen inondik inora bere mailarik eman. Urduri eta lotuegi jokatu zuen eta espero baino huts gehiago egin zituen.

Arretxe II.ak 22-14 kanporatu zuen Xala. Azken hori zen irabazteko faborito, baina belaunean min hartu zuen, partidua erabat baldintzatuz. Nolanahi ere, Berasaluzek VIII.ak kontu handia izan beharko du Arretxe II.agaz etzidamu. "Lau t'erdiko joko klasikoan ondo moldatzen da eta asko defendatzen du; partidu gogorra aurreikusten dut", dio Berrizko pilotariak. ■ J.D.

Mikel Bilbao

Radio Euskadiko kazetaria



## Azken mohikanoa

Adituarentxokoa

Erretiroa hartuko du zesta-puntako erreferentzia nagusietako batek. Badoa Felix Espilla, Berriatuko sendokotea; badoa "azken mohikanoa", lagun handia duen Aitor Totorika enpresari durangarrak behin baino gehiagotan esan dion moduan. Txapel batekin agurtu zitekeen, baina finaleko zoritxarreko lesioak aukerarik gabe utzi zuen.

Hala ere, minezko eta, batez ere, amorrutako malkoak eragin zituen lesioaren ondoren, partidu amaieran, momentu hunkigarria etorri zen. Sari banaketan, Jostaldi pilotalekuak txalo sorta gogogarria eskaini zion. Felix hunkituta zegoen, ia ezin zuen barbarik egin; Aitor Totorikari eta Mikel Plazari negar malkoak nabari zitzaizkien. Felixek txapel bat galdu zuen —baditu hainbat—, baina zaleen txaloaldia betirako gogoan geratuko zaio.

Orain agurraren eta omenaldiaren ordua da. Zuriz agurtu nahi zituen Durangoko eta Markinako zaleak, eta ezin izan zuen. Gogoan dugu sanfaustetan Durangoko zaleen aldetik jaso zuen agur beroa, eta Totorikak eman zion oroigarria. Baina badugu albiste on bat: urrezko zesta lehiatu ahalko du, azken urteetan distira eman dion txapelketa. Beraz, zuriz eta kantxan agurtuko da; urtarrelean izango da, 49 urte egiteko hilebeteren faltan.

Bestalde, pilotan Pablo Berasaluzek lau t'erdiko final-laurdenetan sartzeko aukera bikaina du. Ez da erraza izango, aurrez aurre Iker Arretxe gotorra izango baitu. Iñaki Izak ere ekingo dio txapelketari, Rico errioxarraren kontra. Kantxa osorako dohain hobeak dituen arren, sorpresa ematen saiatuko da.

## Ruben Perez omendu zuten zale eta lagunak

Izukari tabernan batu ohi diren zaleen partetik jaso zuen oroigarrietako bat



Hainbat txirrindulari ohi batu zituen omenaldiak. Carlos Pradera

Euskaltel-Euskadiko Ruben Perez Zaldibarko txirrindularia omendu zuten joan zen bari-kuan Izukari tabernaren aurrean. Perezen profesionaletako ibilbidea eskertu zioten zaleek, lagunak eta senitartekoek oroi-garri banaren bidez.

Ekitaldiak hainbat txirrindulari ohi ere batu zituen: Unai Etxebarria, Iñaki Aiztegi, Unai Uribarri, Mikel Pradera eta Ismael Lejarreta, besteak beste. Perezek eskerrak eman zituen

omenaldira batu zirenei eta oso pozik dagoela aitortu zuen.

Aurten bere ibilbide profesionaleko lehenengo garaipena lortu du Bavariako Itzulian. Bere denboraldiagaz batera, taldearena ere goraiatu nahi izan du: "Aurten 17 garaipen lortu ditugu, inoiz baino gehiago, eta taldeak lan oso ona egin duela uste dut". ■ J.D.

> Bideoa ikusgai [www.anboto.org-en](http://www.anboto.org-en)

# Gaztetasuna eta esperientzia batuta Elorrio hasiera itzela osatzen dabil

Jokalari eskasiagatik iaz gazteak eta nagusiak talde bakar batean batu zituzten eta mailaz igotzeko zorian egon ziren; aurten, orain arteko sei partiduak irabazita liderrak dira



Joan zen astean etxean 2-1 menderatu zuten Santutxu taldea. Juanra de la Cruz

Joan zen urteko denboraldi aurrean du sorburua gaurko Elorrio indartsuak. Adinarenatik, gazteen taldeko batzuei nagusietarako saltoa emateko sasoa heldu zitzaion. Orduan, talde bakoitza 14 bat jokalarirekin geratzen zela ohartuta, maila bietan hankamotz jardun beharrean,

**Gontzal Arana: "Bizkerre B-ren kontra ikusiko dugu gure aurtengo benetako potentziala"**

bigarren erregionalari ahalik bermerik handienarekin aurre egitea erabaki zuten talde biak batuz. Iaz gaztetasuna eta eskarmentuaren halabeharrezko formulak bere fruituak eman zituen eta azken unera arte lehenengo erregionalera igotzeko aukerak izan zituzten. Aurten formularen aldagai guz-

tiak finkatzea lortu dute eta horren ondorio da orain arteko sei partiduak irabazi izana.

Iaz igoeratik hain gertu geratu eta aurten hain ahaltsu hasita, normala da jokalarien artean "aurten bai, aurten lortu genezake" lako komentarioak entzutea entrenamenduetan; horregatik Gontzal Arana entrenatzaileetako baten (Mikel Arrube eta Jon Larrañaga ere badabiltza) esanetan, "ideia horiek oraingoz burutik kentzen eta pentsamendua partiduz partiduko dinamikara zentratzen saiatzen gara". Gehiegizko konfian-

Elorrio golik gutxien jaso duen taldea da; bost besterik ez

tza ez baita bidelagun ona. Joan zen astean uste baino gehiago kostatu zitzaion Santutxu azken hirugarrena menderatzea (2-1): "Konfiantza gehiegirekin irten ginen", onartu du Aranak.

Domekan, Bizkerre Bren zelaietan derrigor irten beharko dute ehunik ehunean. Getxoztarrak laugarren daude eta golik gehien sartu duten taldea dira: 21 guztira. Jaso ere mordoa jaso dute: 18. "Orain arteko erronkarik handiena da eta horixe ikusiko dugu benetan aurten zer potentzial dugun". ■ J.D.

## Durangaldeko maratoi erdia korrituko dute etzi

Aurten 20. aldian egingo duen lasterketa Urkiolako Santutegian hasiko da, 10:00etan

Domekan hamarkada bi egingo ditu Bidezabalek antolatutako Durangaldeko maratoi erdiak. Ohi legez, Urkiolako Santutegian aurrean hasiko dute lasterketa eta ibilbideak Urkiola inguruko paisaiekin gozatzeko aukera ere eskainiko du.

Ibilbide bi daude aukeran. 11 kilometro dituen laburrena 10:00etan hasiko dute eta 22 kilometro eskas dituen luzeena 10:30ean.

Urtero parte hartze zabala izaten duen maratoi erdian hainbat sari banatuko dituzte. Irabaz-

leak —gizonetan zein emakumeetan— 250 euro jasoko ditu; bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 75 euro. 35 urtetik aurrera adin tarteka banatuko

**Irabazleak 250 euro jasoko ditu; bigarrenak 150 eta hirugarrenak 75**

dituzten mailetako irabazleek ere garaikurra jasoko dute, Durangaldeko hiru korrikalari onenen moduan. ■ J.D.

## Mendibeltz lehenengo puntuen bila derbian

Durangoko taldea azkenengo dago puntu barik; Abadiñoeko Gaztetxiek, aldiz, goian dabil

Areto futboleko lehenengo erregionalean derbia jokatuko dute Mendibeltzek eta Abadiñoeko Gaztetxiek. Durangoko taldeak puntuak behar ditu, orain arteko lau partiduak galdu ondoren zuloan dagoelako. Abadiñoarren, aldiz, lautik hiru irabazi dituzte —Abadiñoeko Lagunen kontrako derbia galdu zuten— eta hirugarren daude saikapenean.

Abadiñoeko Lagunek lider-tza defendatuko du etxean Zuentzat taldearen aurka. Eurak dira orain arteko lau

partiduak irabazi dituzten bakarrak. Teorian irabazteko partidua da Basauriko taldea azken hirugarren baitago puntu bakarrekin.

### Gu Lagunak ere lider

Bigarren erregionalean ere eskualdeko talde bat dago lider: Gu Lagunak. Durangoko taldeak oraindik ez du partidurik galdu: bina garaipen eta berdinketa bana etxean eta kanpoan. Iurretako Dantxari ere goian dabil; laugarren, lider-tzatik hiru puntura. ■ J.D.

## Agenda

### FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**  
**Durangoko Kulturala - Zarautz**  
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

**OHOREZKO MAILA**  
**Berriz - Derio**  
Zapatuan, 17:30ean, Berrizburun  
**LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**

**Zaldia - Baklo**  
Zapatuan, 16:15ean, Solobarrian  
**HIRUGARREN ERREGIONALA**  
**Zaldia B - Elorrio B**

Zapatuan, 18:30ean, Solobarrian  
**Extremeño - Berriz B**  
Domekan, 18:00etan, Tabiran  
**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Iurretako - Pauldarrak**  
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

### ARETO FUTBOLA NAZIONAL B MAILA

**Elorrioko Buskantza - Meatzari Petronor**  
Domekan, 12:00etan, Elorrioko kiroldegian  
**EUSKAL LIGA**

**Kurutziaga Ikastola - Kukuilaga Etxebarri**  
Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

**Sasikoa B - Inter**  
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian  
**LEHENENGO ERREGIONALA**

**Elorrioko B - Mazuberri**  
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

**Mendibeltz - Abadiñoeko Gaztetxiek**  
Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian  
**Abadiñoeko Lagun - Zuentzat**

Zapatuan, 17:00etan, Berrizburu kiroldegian  
**BIGARREN ERREGIONALA**  
**Sapuberri - Scalibur**

Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian  
**Dantxari - Usansolo**  
Zapatuan, 17:30ean, Lanbide Heziketa institutuan

### SASKIBALOA EBA MAILA

**Tabirako Baqué - Pais Pielagos**  
Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian  
**LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**

**Tabirako Baqué - Aguilas Salesianos**  
Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

### PILOTA XXIII. OLAZAR TXAPELKETA

Lau t'erdian:  
**Etxebarri - Aurtenetxe**

Binaka:  
**Andreu (Gipuzkoa) - Aidape (Mallabia) / Azpirl (Elorrio) - Landaburu (Elorrio)**

Azaroaren 4an, 21:30ean, Zaldibarko pilotalekuan









DENBORAPASAK

Calendar grid for October 29th with various events and dates. Includes entries like Margotu, Errekorra, Suari dariona, Kobazuloa, etc.

ZORION AGURRAK > zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Adurrek urriaren 30ean urteak betetzen ditu. Zorionak Elorriko eta Bergarako familia osoaren partez!! Zurekin gauz! besarkada eta muxu erraldoi pillak!!! animo!!



Narrea Azulak 7 urte egin ditu urriaren 27an. Zorionak eta musu handi bat familiako neska dotoreari etxeko guztien partez, bereziki Aiora, Gadea, Jon eta Elene.



Bidart Aldekoa-Otalora Salterainek bere lehen urtetxoa egingo du zapatu honetan. Muxu potolo-potoloak lorretako zure aittite eta amama, Urko eta Helene eta gainontzeko familiaren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea. Zorionak Ibai eta Jokin Izagirrerri. Aste honetan zotz egin dugun tarta zeuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu.



Anatolik 9 urte egingo ditu azaroaren 1ean eta Natalyk 7 hilabete 7an. Zorionak bio! Besarkada haundi bat eta muxu piloa familiaren partez!

Two 5x5 grid puzzles labeled 1 and 2, containing numbers for a logic puzzle.

BOTIKAK >

- Barikua, 29
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapatua, 30
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Domeka, 31
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Astelehena, 1
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
Martitzena, 2
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguaztena, 3
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Lopez de Aretxaga (Torresola, nº 4 - Abadiño)
Eguena, 4
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112
DYA .....94 620 28 00
Gurutze Gorria ....94 681 09 49
Osakidetza .....94 600 72 00
Ertzaintza .....94 466 93 00
Suhiltzaileak .....112
GARRAIOAK
Euskotren .....902 54 32 10
Bizkaibus .....94 448 40 80
Pesa .....902 10 12 10
Continental Auto ....945 286 466
TAXIAK
Abadiño .....946 814 470
Matiena .....606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Elorrio Geltokia ....946 820 040
J.L. Uriarte .....670 402 002
I. Estebez .....670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta .....946 201 565
Taxi auzunea .....688 618 690
UDALAK
Abadiño .....94 621 55 30
Atxondo .....94 682 10 09
Berriz .....94 682 45 84
Durango .....94 603 00 00
Elorrio .....94 658 27 12
Garai .....94 681 63 93
Iurreta .....94 620 12 00
Izurtza .....94 681 35 48
Mallabia .....943 17 14 61
Mañaria .....94 681 89 98
Otxandio .....945 45 00 20
Zaldibar .....94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño .....94 621 55 33
Berriz .....94 682 40 36
Durango .....94 603 00 10
Elorrio .....94 682 02 18
Iurreta .....94 620 08 88
EGURALDIA >
25° BARIKUA ☔
18° ZAPATUA ☀
17° DOMEKA ☔
15° ASTELEHENA ☔
23° MARTITZENA ☔

- ARIES (marxoak 21 - apirilak 20)
Atzokoaren esklabuak gara, baina biharkoa gure esku dago. Baztertu pentsamendu okerrak.
TAURUS (apirilak 21 - maiatzak 20)
Udagoieneko lehenengo hotzek ezustean harrapatu zaituzte eta katarroa kendu ezinik zabilta.
GEMINI (maiatzak 21 - ekainak 20)
Ingurukoek agintzen dute zure bizitzan. Zeure erabaki propioak hartzen ikasi behar duzu.
CANCER (ekainak 21 - uztailak 20)
Negozio ona egin zenezake, baina diru asko inbertitzea eskatzen du. Badaezpada birritan pentsatu.
LEO (uztailak 21 - abuztuak 23)
Lanak denbora larregi kentzen dizu. Lanaz gainera beste gauza asko daude bizitzan.
VIRGO (abuztuak 24 - irailak 23)
Asteburuan zer egin pentsatzen zabilta. Familiagaz egotea plan ona izan daiteke.
LIBRA (irailak 24 - urriak 23)
Soberan dituzun kiloak zelan kendu hausnartzen ari zara. Dieta, ariketa eta ala biak?
SCORPIUS (urriak 24 - azaroak 23)
Oztopo guztien gainetik elkarrekin jarraitzen duzue. Maiteminduta zaudetela ez dago dudarik.
SAGITARIUS (azaroak 24 - abenduak 23)
Pilates egiten hasi zinen ariketa lasaia zelakoan. Eta, bai zera! Neka-neka eginda amaitzen duzu.
CAPRICORNUS (abenduak 24 - urtarrilak 20)
Txarto ulertu baten ondorioz lagun batekin haserretu zara. Nork egingo du lehenengo urratsa?
AQUARIUS (urtarrilak 21 - otsailak 21)
Esker txarrekoiei badakizu zer egin: mesede eske datozen hurrengoan, jaramonik egin ere ez.
PISCIS (otsailak 22 - martiak 20)
Zenbat jende bizi den inbidiazag eta erresuminez! Ez zenuen horrelakorik espero, ezta?

SOLUZIOAK

Two 4x4 grid puzzles with numbers, likely solutions to the puzzles in the 'BOTIKAK' section.

A 10x10 grid puzzle with letters and numbers, likely a solution to the 'EGURALDIA' section.

# "Kirol baten positiborik ez badago, kontrolik ez dagoelako izango da"

Aitaren bizikletagaz txandaka jolastetik semea mendi bizikletan animatzera, gurpil artean ibili da beti Ismael Lejarreta

**G**arajeen dozena bat bizikleta inguru ditu Ismael Lejarretak, familia guztienak. Iñaki semea ondo dabil orain mendi bizikletan; txikitatik horretarako gaitasun berezia izan duela dio aitak. Bera ere, astean hiru aldiz bizikleta hartuta menditik ibiltzen da, errepidean baino lasaiago.

## Txikitari anaiekin bizikleta gainean imajinatzen zaitut.

Nire bikia eta ni beti ibiltzen ginen jolasean eta gure jolasa kirola egitea zen. Aitak bizikleta bat zeukan, eta harekin txandaka ibiltzen ginen; gure kirol-borrokak ziren haiek. Gero auzokide bategaz eta Marino ere handitzean ibiltzen zen gugaz. Gerra ostean hori zen euskaldunen joera: lana, eta lana ez zegoenean, kirola.

## Zelan gogoratzen dituzu profesional sasoiak?

Urte asko pasa da eta gogoratzen dut gustuko kirola gustuko lan bihurtuzela. Jolasa eta gozamenaren ostetik sakrifizio askoko garaiak heldu ziren.

## Sakrifizio handiko kirola da. Ez da larregikoa?

Aurrean egoteko sakrifizio handia egin behar da, baina hori kirol denetan da horrela; bizitzan ere bai, hori da bizitzako legea. Egia da iraupen luzeke kirolek sakrifizio gehiago behar dutela beste batzuek baino. Kontzentratuta egon behar zara maximora, kirola egiterakoan, lo egiterakoan, jaterakoan... Ez da larregikoa; Iñurategi ere lan handia egiten du, baina tontorrera heltzerakoan satisfakzioa lortzeko horrela behar du.

## Eskandaluak behintzat badaude. Azkena, Contadorrena.

Txirrindularitzaren kontra egongo da, eta kontrolatzen da.

lak ondo daude, baina beste kirol batzuk ere topera dabilta, eta hori tapatu egiten dute. Zinismo handia dago. Kirol baten positiborik ez dagoela esaten badidazu, esango dizut hor ez dela kontrolik egiten. Contadorri zenbaki txikiakin eman gura diote positibo. Horiekin zenbaki txikiakin joaten bazara gizartean bilatzen, alor guztietan egongo dira positiboak; futbolearen ere bai. Legea dago, baina ez daitezela faltsukerietan ibili.

## Mendiko bizikletan dabil Iñakizure semea.

## Familiak asko lagunduko zion...

Txiki-txikitatik hartu du zaleatasuna, bai. Nirekin ibiltzen zen, eta 7-8 urtegar asko ibiltzen zen. Aldapetan nik egiten nion bultza atzetik, baina 9-10 urtegar bultza egin barik joaten zen eta 12

urtegar ni ibiltzen nintzen atzean itxoiteko eskatzen. Fisikoki gaitasun handia dauka, eta teknika ere badauka. Psikologikoki indartsua da, eta hori ere garrantzitsua da. Gaitza da mendiko bizikleta. Lasterketa gutxiago egoten da errepidean baino, eta hori ondo dago, astean zeharikasteko aukera ematen duelako. Errepidekoan gaitzagoa da; astean zehar ere egoten dira lasterketak, entrenamenduak luzeagoak dira eta birak ere egoten dira.

## Errepidekoa da modalitate eza-gunena, zalantza barik.

Federazioek eta klubek errepidean jartzen dute indarra; horrek dauka pantaila eta dirua. Baina nire ustez mendikoa, belodromoa eta ziklo krossa ere bultzatu beharoko litzukete. Durangaldean ere, klub batzuek ez diete gazteei belodromoan eta mendian ibiltzen uzten. Errepidean ibiltzen dira, eta neguan ziklo krossean. Alor denak probatzeko aukera eduki beharoko lukete, denetan ikasten delako zerbaite. Belodromoan, adibidez, pelotoian abiaturagaz joaten ikasten da, eta aukera ederra dago Durangaldean, Berrizko belodromoan. Lehengo eskemekin daude baina. Txirrindularitzagaz pena hori dut, kostatu egiten zaiela agintzen dutenei eboluzionatzea. Nire denboretan erreglamenduak esaten zuen kuloteak beltzak izan behar zirela derrigorrez, eta galtzerdiak zuriak. Lehen aldiz Frantziako talde batek beltzak ez ziren kulotak, larrosak, jantzi zituela gogoratzen dut, eta iskanbila sortu zen.



Iñaki Sánchez Irakaslea

## Jokaldia

James sukaldean dago, gaixotasun zital batek preso du etxean. Zoruari erreparatu dio; baldosa zuriak eta beltzak daude, era matematikoan tartekatuta. Zuria, beltza, zuria, beltza... Guztira, 64 lauki zuri eta beltz. Adinean, aldiz, ez da heldu zifra horretara, askoz ere gazteagoa dugu. Berriz ere, begirada behera zuzendu du; zehatz-mehatz, hirurogeita lau lauki, xakean bezala. Gaztaroan pieza guztiak daukazu taula-txoan. Partidan ilusioa da nagusi, mugimendu perfektuak egingo dituzun uste osoa dago, jokaldien kopuru mugagabea, zein baino zein beteagoa. Aukeran ere, piezen kolorea: zuria ala beltza.

## Jamesek pieza batzuk mugitu ditzake eta jokaldi duinen bat egin

Bada, heriotza dugu azken geltokia eta, bitartean, partidak aurrera darrai. Apurka-apurka indarra agortuz doa, ilusioa zapuztuz eta jokaldi posibleen eremua murriztu egiten da, oso. Tartean, porrotek eta frustrazioek sarraski ederra eragin dute bizitzaren lauki inperfektuan: dorre bat bertan behera erori da, alfiliak galdu dira, zaldi batek hanka bat apurtu du, eta erreginak abandonatu egin zaitu; baita bidean peoi asko desagertu ere.

Alabaina, oraindik, Jamesek pieza batzuk mugitu ahal ditu eta jokaldi duinen bat ere egin lezake, baldin eta estrategiarekin asmatzen badu. Jakin badaki jokatzeko, bizitzak nola jokatu irakatsi baitio. Barre itxaropentsua egin du; ez da xake-materako unea iritsi. Zeuk ere, partida on!



Ismael Lejarreta •

Berriztarra  
Txirrindulari ohia

Munduko kaferik eta terik onenak  
Kolonbia, Kenya, Guatemala, Nikaragua,...

CAFES LA TOSTADORA

Andramari kalea (DURANGO) - Tlf.: 946 81 48 36